

*txanela*

Irakaslearen gidaliburua  
(zirriborroa)

**4**

**Lehen gizakiak**

(Txanela - Material globalizatua,  
Lehen Hezkuntza - 1. maila)

# TXANELA 1

## 4. unitate didaktikoa

### LEHEN GIZAKIAK

#### LABURPENA

Maddalenek, Ferminek, Urdintxok eta Poxek birraitonaren ametsa betetzea dute helburu, museo bat eraikitzea, alegia. Birraitonaren Denboraren makina konpondu dute, eta denboran eta espazioan barrena hainbat bidaiari egin, informazioa bildu eta jarduera asko eginda, museorako piezak eskuratuko dituzte. Unitate honetan, Maddalenen eta Ferminen abenturari jarraituta, bigarren bidaiari ekingo diogu: lehen gizakien garaira joango gara.

Unitateari hasiera eman eta gai berriari kokatzeko, liburuxkaren azalari behatu eta komikia irakurriko dugu. Ikasi nahi dugunaren ildo nagusiak finkatu aurretik, ikasleek gaiari buruz dakitena azalazten saiatuko gara. Hurrengo jarduera-blokeari ekin baino lehen, lehen gizakiaren txokoa eraikiko dugu.

Proiektua aurkeztu ondoren (antzerki-emanaldia), gaiaren abestia ikasiko dugu. Hemendik aurrera landuko ditugun alderdi guztietatik gure proiekturako baliagarri izango den zerbait ikastea eta egitea proposatzen dugu: sua, haitzuloa (irtenaldia proposatzen dugu), labar-arte, egiten zituzten tresnak, elikagaiak nola lortzen zituzten, nola jantzen ziren, nola apaintzen zuten euren burua...

Azkenik, ekitaldiari begirako hainbat xehetasun zehaztuko ditugu, hala nola, gidoia, nola iragarri... eta nola ez, agerraldia egingo dugu.

Liburuak etxera eramango aurretik, unitatean zehar egindakoa gogoratu eta baloratuko dugu. Bukatzeko, liburuxka etxera eramango dugu familiarerako erakusteko. Etxeko lana haurren azalpenak entzutea, egindakoa positiboki baloratzea eta beren iritzia idatziz adieraztea izango da.

#### MATERIALA

- Unitate honen gida:
  - Jarduera zerrenda sekuentzien arabera sailkatuta.
  - Unitate honi dagozkion ziklo amaierako helburuak.
  - Unitateko ebaluazio-irizpideen taula.
  - Unitatea lau astetan egiteko planaren proposamena.
  - Jardueren azalpena eta helburuekiko eta ebaluazio-irizpideekiko lotura.
  - Eranskinak.
- Lehen gizakiari buruzko informazioa honako web-orri hauetan aurkituko duzue:
  - <http://www.elestrecho.com/arte-sur/paleo.htm>
  - <http://www.fundacionatapuerca.com>
  - <http://www.hiru.com/arte>
- Ikaslearen liburua, irakurgaiak, abestien CDa, jardueren CDa, lan-koadernoak, material osagarria, *Birraitonaren museoa 1* CD-ROMa eta *Birraitonaren museoa* bideoa.
- Buztina, argazki makina. Antzerkia egiteko apaingarriak, tresnak, jantziak etab. egiteko materialak: plastikozko poltsak, sokak, oskolak, irina, gatzak, puntzoiak edo zulagailuak...
- Liburu digitala (zoom-liburua)

#### Oharrak:

- Baliteke *Gabonak* gertu izatea unitate hau lantzen ari zaretenean. Hautazko jarduera moduan, "Gabonetako jarduera" proposatzen dira, eranskin moduan zerrendatuta, sekuentziaz kanpo.
- *Gaztelaniari* dagokionean, unitatean proposatutako jarduerak sekuentziaz kanpo daude. F. Holbrooken *Izei txikia* ipuinaren inguruko jarduerak dira.

**JARDUERA ZERRENDA SEKUENTZIAREN ARABERA SAILKATUTA**

SEKUENTZIA	PROIEKTUAREKIKOAK	JARDUERAK	IZAERA
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurre-ezagutzak aktibatu</li> <li>- Gaiarekiko motibazioa sortu</li> <li>- Aurreikuspen estrategiak landu</li> </ul>	Gairekiko aurre-ezagutzak aktibatu, motibazioa sustatu eta aurreikuspen estrategiak landu	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Azalari behatzea eta elkarrizketa</li> <li>2. Komikia</li> <li>3. Komikia antzetztea</li> <li>4. Bertsoa: <i>Lehen gizakia</i></li> <li>5. Zer dakizu Lehen Gizakiari buruz?</li> <li>6. Marrazki bizidunak: <i>Harriketarrak</i></li> <li>7. Egia edo gezurra</li> <li>8. Lehen Gizakiaren txokoa</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Garrantzizkoa</li> <li>2. Garrantzizkoa</li> <li>3. Osagarria</li> <li>4. Osagarria</li> <li>5. Garrantzizkoa</li> <li>6. Hautazkoa</li> <li>7. Osagarria</li> <li>8. Garrantzizkoa</li> </ol>
	Proiektuarekiko motibazioa sustatu eta planifikazioa hasi	<ol style="list-style-type: none"> <li>9. Proiektuaren aurkezpena: Ehiza saioaren antzetzpena</li> <li>10. Zer jakin behar dugu antzerkia egiteko?</li> <li>11. Gaiaren abestia: <i>Urki, Urki</i></li> <li>12. Entzunaldia: <i>Orexa TX, Keinuka Ilargiari</i></li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>9. Garrantzizkoa</li> <li>10. Garrantzizkoa</li> <li>11. Garrantzizkoa</li> <li>12. Garrantzizkoa</li> </ol>
Edukien sekuentziarioak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sua</li> <li>- Bizilekua</li> <li>- Tresnak</li> <li>- Elikadura</li> <li>- Jantziak</li> </ul>	Antzetzpena: proiektuari ekin eta gauzatu	<ol style="list-style-type: none"> <li>13. Sua</li> <li>14. Jo dezagun sugarrak garela</li> <li>15. Let's make a fire</li> <li>16. Non bizi ziren?</li> <li>17. Artelanak: labar-arteak</li> <li>18. Letra-zopa: gure inguruko haitzuloak.</li> <li>19. Berria: Ekaingo haitzuloaren errepika ikusgai</li> <li>20. Abestia: <i>Oi, lur, agur</i></li> <li>21. Irtenaldia: gurasoei gutuna</li> <li>22. Irtenaldia: Nondik nora aginduei jarraituz</li> <li>23. Estalagmitak egiten</li> <li>24. Zer tresna erabiltzen zituzten?</li> <li>25. Bideoa: <i>Aztarnategiak</i></li> <li>26. Hitz-jokoak</li> <li>27. Birraitonaren museoa 1 CD-ROM</li> <li>28. Silabak elkartuz hitzak osatzen</li> <li>29. Zer jaten zuten?</li> <li>30. Buztinezko ontzia: goporra</li> <li>31. Ipuina: <i>Nola asmatu ziren taloak?</i></li> <li>32. Ipuina aitzakia: Elkartasun jolasa</li> <li>33. Taloaren errezeta</li> <li>34. Bertsoa osatu</li> <li>35. Elikagaien hitz gurutzatuak</li> <li>36. Nola jantzen ziren?</li> <li>37. Apaingarriak</li> <li>38. Gidoia osatzen</li> <li>39. Kartelak eta fitxa teknikoa</li> <li>40. Gonbidapena</li> <li>41. Mezu sekretua</li> <li>42. Antzerki-emanaldia</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>13. Garrantzizkoa</li> <li>14. Hautazkoa</li> <li>15. Garrantzizkoa</li> <li>16. Garrantzizkoa</li> <li>17. Garrantzizkoa</li> <li>18. Osagarria</li> <li>19. Osagarria</li> <li>20. Hautazkoa</li> <li>21. Garrantzizkoa</li> <li>22. Osagarria</li> <li>23. Hautazkoa</li> <li>24. Garrantzizkoa</li> <li>25. Osagarria</li> <li>26. Osagarria</li> <li>27. Osagarria</li> <li>28. Osagarria</li> <li>29. Garrantzizkoa</li> <li>30. Osagarria</li> <li>31. Garrantzizkoa</li> <li>32. Garrantzizkoa</li> <li>33. Osagarria</li> <li>34. Osagarria</li> <li>35. Osagarria</li> <li>36. Garrantzizkoa</li> <li>37. Garrantzizkoa</li> <li>38. Garrantzizkoa</li> <li>39. Garrantzizkoa</li> <li>40. Garrantzizkoa</li> <li>41. Osagarria</li> <li>42. Garrantzizkoa</li> </ol>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Landutakoa berrikusi</li> </ul>	Proiektua komunikatu eta balioetsi	<ol style="list-style-type: none"> <li>43. Buelako komikia</li> <li>44. Zer dakigu orain lehen gizakiei buruz?</li> <li>45. Antzerkiko argazkiak itsatsi eta oinak idatzi</li> <li>46. Egindakoa berrikusten</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>43. Garrantzizkoa</li> <li>44. Garrantzizkoa</li> <li>45. Garrantzizkoa</li> <li>46. Garrantzizkoa</li> </ol>



**4. UNITATE DIDAKTIKOA:  
ZIKLO AMAIERAKO HELBURUEN ETA JARDUERREN ARTEKO HARREMANA  
HIZKUNTZA ARLOA (1)**

HELBURUAK	JARDUERAK
1.1 Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuaren esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzeekin, bizipenekin eta intereseekin zuzenean lotutako gaien buruzkoak).	19, 31, 1
1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.	17, 20, 22, 23
1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarriketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.	1, 2, 6, 9, 10, 31, 43, 44, 46, <u>1</u> , <u>3</u>
1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea eskainitako jarraibideen laguntzaz.	8, 32, <u>3</u>
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.	2, 4, 7, 11, 13, 18, 21, 22, 26, 27, 28, 31, 34, 35, 41, 43, 44, 45
1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.	2, 8, 19, 33, 43
1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko informazio aurkitzea eta aukeratzea, eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.	25, 37, 38
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarriko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	5, 13, 16, 21, 24, 25, 36, 38, 40, 45, <u>5</u>
1.11 Euskara ohiko komunikazio-eremu eta egoera gehienetan erabiltzea, euskararen normalizazio eta euskal kulturaren transmisio-prozesuetan aktiboki parte hartuz.	43, <u>1</u> , <u>2</u> , <u>3</u> , <u>4</u> , <u>5</u>
1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nor bere kultura-nortasuna eraikitzeke eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.	3, <u>2</u>
1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoak garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.	4, 20, 26, 31, 34, <u>1</u>
<b>INGURUNEAREN EZAGUERA ARLOA (2)</b>	
2.3 Giza gorputzaren ezagutzatik ondorioztatzen diren, higiene, elikadura, jarduera fisikoa, atsedean eta segurtasun ohiturekin nor bere burua zaintzeko bat eginez jokatzeko; norbanakoaren aukerak eta mugak ezagutzeko, eta kideen arteko ezberdintasunak (adina, sexua, ezaugarri fisikoak, nortasuna eta abar) onartzeko eta errespetatzeko, bereizkeriarik gabe.	46
2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonen eta emakumeen batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.	13, 16, 24, 29, 32, 36
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	8, 13, 16, 17, 24, 36
<b>ARTE HEZKUNTZA ARLOA (3)</b>	
3.1 Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea.	12, 42
3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.	3, 11, 14, 42
3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.	17, 39
3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.	17, 23, 24, 30, 32, 36, 37, <u>3</u> , <u>4</u>
<b>HELBURU METADISZIPLINARRAK (4)</b>	
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	1, 5, 16, 17, 18, 24, 25, 29, 30, 36, 37, 38, 39, 42, 44, <u>2</u> , <u>3</u>
4.4 Hainbat testuingurutan, proposamen jakin baten arabera, prozesuan egindako ikasbideaz jabetzen da.	44

\*Azpimarratuta dauden zenbakiak gaztelaniazko jarduerari dagozkie.

1. U.D EBALUAZIO IRIZPIDEAK	1.1.1 Azalpena arretaz entzuten du.	1.1.2 Elementuen esanahia interpretatzen du.	1.1.4 Testu baten oinarritzko ideiak gogoratzen ditu.	1.2.1 Ahozko jarraibideen arabera jotzen du.	1.2.2. Datuak zeregina burutzeko erabiltzen ditu.	1.3.1 Berez parte hartzen du ekarpenak egiteko.	1.3.4 Elkarrizketa arauak aplikatzen saiatzen da.	1.4.1 Aurkezpenen prestaketa elkarlanean aritzen da.	1.4.3 Era ulergarrian adierazten ditu bere ideiak.	1.5.1 Idatziaren behaketa aktiboki parte hartzen du.	1.6.2 Testu genero sarrienak bereizten ditu.	1.6.3 Hitzekoak ez diren elementuak interpretatzen ditu.	1.7.1 Galderei erantzuteko informazioa aurkitzen du.	1.8.1 Eraikize prozesuan aktiboki parte hartzen du.	1.8.3 Testua egoki aurkezten du.	1.8.8 Ikasleekin testua sortzean parte hartzen du.	1.11.1 Euskara/gaztelania erabiltzen du.	1.12.1 Testu motzak ulertzeko moduan errezitatzen ditu.	1.12.2 Pasarte laburrak argitasunez adierazten ditu.	1.13.1 Literaturaz gozatzen du.		
JARDUERAK	19	1	19 31	17 33	20 22	1, 2 6, 9 10, 31 43, 44	1, 2 6, 9 10, 31 43, 44	3	8 32	2, 4 7, 11 13, 18 21, 22 26, 27 28, 31 34, 35 41, 43 44, 45	19 33	2 8 43	25 37 38	5 13 16 24 25 36 38 44 45	21 40	21 40 5	1 2 3 4 5	2	3 43	4 20 26 31 34 1		
IKASLEAK																						
1.																						
2.																						
3.																						
4.																						
5.																						
6.																						
7.																						
8.																						
9.																						
10.																						
11.																						
12.																						
13.																						
14.																						
15.																						
16.																						
17.																						
18.																						
19.																						
20.																						
21.																						
22.																						
23.																						
24.																						
25.																						

\*Azpimarratuta dauden zenbakiak gaztelaniazko jarduerari dagozkie.

1. U.D EBALUAZIO IRIZPIDEAK	2.3.4 Emozioak identifikatzen ditu.	2.5.1 Kideen arteko harremanetan parte hartzen du	2.5.6 Denboran zehar egindako aldaketaz jabetzen da eta onurak balioesten ditu.	2.9.3 Informazioa bilatzeko iturriak erabiltzen ditu.	3.1.6 Musika lanak entzuten gozatzen du.	3.1.9 Entzunaldietan egoki jokatu du.	3.2.2 Abestiak aho batez interpretatzen ditu.	3.2.6 Dantza errazen teknikak praktikatzen ditu.	3.2.8 Adierazpenarekin gozatzen du.	3.3.4 Arte objektuak aztertzeke jakin-mina du.	3.3.5 Produktuen funtzioak aztertzen ditu.	3.4.1 Marrazkiak egiten ditu.	3.4.8 Materialak manipulatzuz gozatzen du.	3.4.9 Ideiak sormenez agertzen ditu.	4.1.1 Talde lanean aktiboki parte hartzen du.	4.1.3 Berdintasunez eta errespetuz aritzen da.	4.1.7 Lan erritmo egokia izaten laguntzen du.	4.1.8 Materialak arretaz erabili eta jasotzen ditu.	4.4.1 Ideiak tresnen bidez jasotzeko gai da.	4.4.2 Prozesuan egindako aurrerapena balioesteko gai da.	
JARDUERAK	46	32	13 16 24 29 36	8 13 16 17 24 36	12	12 42	11	42	3 14	17	39	3	17 23 24 30 36 37 4	32	1, 5 16, 18 25, 29 38, 39 42, 2	1, 5 16, 18 25, 29 38, 39 42, 2 3	17 25	16 17 24 30 36 37 39 42	44	44	
IKASLEAK																					
1.																					
2.																					
3.																					
4.																					
5.																					
6.																					
7.																					
8.																					
9.																					
10.																					
11.																					
12.																					
13.																					
14.																					
15.																					
16.																					
17.																					
18.																					
19.																					
20.																					
21.																					
22.																					
23.																					
24.																					
25.																					

\*Azpimarratuta dauden zenbakiak gaztelaniazko jarduerari dagozkie.





## TXANELA 1.4: LEHEN GIZAKIAK

(Proposamena: unitatea bost astetan garatzeko plangintza)

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
<p>Azalari behatzea</p> <p>Komikia</p> <p>Komikia antzeztea</p>	<p>Zer dakizu lehen gizakiari buruz?</p> <p>Bertsoa: <i>Lehen gizakia</i></p> <p>Gaiaren abestia entzun: <i>Urki, Urki</i></p>	<p>Egia-gezurra</p> <p>Lehen gizakiaren txokoa</p> <p>Harriketarrak</p>	<p>Proiektua aurkeztea</p> <p>Gaiaren abestia: Urki, Urki</p>	<p>Zer jakin behar dugu antzerkia egiteko?</p> <p>Entzunaldia</p>
<p>Sua</p> <p>Jo dezagun sugarrak garela</p> <p>Let's make a fire</p>	<p>Non bizi ziren?</p> <p>Dekoratua egiten hasi edo kobazuloa egin</p>	<p>Kobazuloa egiteko prozesua idatzi.</p> <p>Artelanak</p> <p>Letra-zopa: inguruko haitzuloak.</p>	<p>Berria: Ekaingo haitzuloaren errepika</p> <p>Abestia: <i>Oi, lur, agur</i></p>	<p>Irtenaldia: gurasoei gutuna.</p> <p>Estalagmitak egiten.</p>
<p>Zer tresna erabiltzen zituzten?</p>	<p>Bideoa: <i>Aztarnategiak</i></p> <p>Silabak elkartuz hitzak osatzen</p> <p>Hitz-jokoak</p>	<p>Buztinezko ontziak</p> <p>Ipuina: <i>Nola asmatu ziren taloak?</i></p>	<p>Zer jaten zuten?</p> <p>Elkartasun jolasa</p> <p>Elikagaien hitz gurutzatuak</p>	<p>Taloaren errezeta</p> <p>Bertsoa osatu</p>
<p>Nola janzten ziren?</p>	<p>Apaingarriak</p>	<p>Gidoia osatzen</p> <p>Antzerkirako rolak banatu</p>	<p>Kartelak eta fitxa teknikoa</p> <p>Entsegua</p>	<p>Gonbidapena</p> <p>Entsegua</p>
<p>Mezu sekretua</p> <p>Entsegua</p>	<p><b>ANTZERKI EMANALDIA</b></p>	<p>Egindakoa berrikusten</p> <p>Bueltako komikia</p>	<p>Zer dakigu orain lehen gizakiari buruz?</p>	<p>Argazkiak itsatsi eta oinak idatzi</p>

# IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkartek garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak kompetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduera sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** ([www.txanela.net](http://www.txanela.net)). Lehen Hezkuntzarako IKT kompetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** ([www.ostadar.net](http://www.ostadar.net)). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduera zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztaperen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

\* \* \* \* \*

## Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkartek eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturteetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduera ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerak, etab. erabili beharrik gabe.






Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitalera jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

# TXANELA 1




## IKASLEAREN LIBURUA - 4. UNITATE DIDAKTIKOA

### BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0		Baliabideen taula	3	49	
1		Azalari behatzea	3	49	
2		Komikia	4-5	50-51	
3		Komikia antzestu	4-5	50-51	
4		<i>Astoa ikusi nuen doinua</i>	5	51	Irakurgaiak 1, 35. or.
5		Zer dakizu lehen gizakiari buruz?	6	52	
6		Marrazki bizidunak	6	52	
6		Pertsonaien aurkezpena; margotzeko irudiak	6	52	
8		Txoko zuria	6	52	
8		Gurasoentzako gutuna	6	52	
8		Carta para los padres	6	52	
9		Antzerkia	7	53	
11		Urki	8	54	
11		Urki	8	54	Musikako lan-koaderno 1, 25. or.

12		Entzunaldia: Oreka TX	8	54	
12		Oreka TX (wikipedia)	8	54	
13		Sua	9	55	
15		Let's make a fire!	10	56	
15		Sua egiteko txantiloia	10	56	
16		Non bizi ziren?	11	57	
16		Lehen gizakiak: Non bizi ziren?	11	57	00:00:00
16		Nola egin kobazuloa? (ingelesez)	11	57	
17		Artelana	12	58	
17		Lehen gizakiak: Artea	12	58	Liburu digitaleko 57. or. 00:06:00
18		Gure inguruko haitzuloak	13	59	Lan-koademoa 1, 21. or.
19		Ekainberri	13	59	
20		Oi, lur, agur!	13	59	
20		Oi, lur, agur!	13	59	
21		Irtinaldia	13	59	
22		Nondik-nora aginduei jarraituz	13	59	Lan-koademoa 1, 22. or.
24		Zer tresna erabiltzen zituzten?	15	61	
24		Lehen gizakia: Tresnak	15	61	Liburu digitaleko 57. or. 00:01:15

25		Aztarnategiak	15	61	
25		Aztarnategiak	15	61	Liburu digitaleko 57. or. 00:04:15
29		Zer jaten zuten?	16-17	62-63	
31		Ipuina (bertsio luzea)	16	62	Irakurgaiak 1, 38-41. or
34		<i>Elurra teilatuan doinua</i>	16	62	
34		Bertsoa	16	62	Lan-koadernoa 1, 25. or.
36		Nola janzten ziren?	18	64	
37		Apaingarriak	19	65	
38		Gidoia osatzen	20	66	
41		Mezu sekretua	20	66	Lan-koadernoa 1, 27. or.
42		Antzerki emanaldia	24	70	
43		Bueltako komikia	21	67	
45		Argazkia	23	69	
46		Egindakoa berrikusten	24	70	

1. jarduera	<b>AZALARI BEHATZEA ETA ELKARRIZKETA</b> (Ikusi <i>Elkarrizketa</i> dokumentua)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p><b>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</b></p> <p><b>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</b></p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuek, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.</p> <p>1.3.4 Elkarrizketaren oinarriko arau sozio-komunikatiboak behar bezala aplikatzen saiatzen da (txanda gorde, hitza eskatu, solaskideak errespetatu...).</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka, talde txikian eta talde handian	
MATERIALA	Txanela 1.4 unitateko azala eta taldeko lanean rola banatzeko txartelak (Ikusi azalpena)	
<b>AZALPENA</b>		

- Gelako arduradunek liburuak banatuko dituzte eta ikasleei denbora tarte bat eskainiko diegu liburua ikusteko eta beren izena idazteko.
- Ondoren, unitate osoaren eta, batez ere, azalari behatzea eta elkarrizketa bultzatuko ditugu. Haurren interesari jarraituz eta erronka kognitiboa bultzatuz, aurreikuspen-estrategiak lantzea eta gaiak motibatzea izango dugu helburu. Elkarrizketa talde txikietan bideratuko dugu.
- Ikasleak talde txikietan jarriko ditugu (3 edo 4 ikasle). Behaketa bideratzeko talde bakoitzari, galdera bat luzatuko diogu. Galderak honako hauek izan daitezke:
  - Zer jartzen du liburuaren azalean? Denboraren makinan egingo dugun bigarren bidaian, nora joango gara uste duzue? Agian liburuan idatzita egongo da nora joango garen.
  - Zer ikasiko dugu lehen gizakiari buruz? Imajinatzen al duzue nolako izango den lehen gizakien garaia? Zer ikusiko dugu?
  - Zer egingo dugu ikasitakoarekin? "Sorpresa" unitatean bezala, proiektu bat egingo dugu. Zer izango da?
  - Begira azalari: Zer ikusten duzue liburuaren azalean?

Azken galdera horri erantzuten saiatzen den taldearekin bideratuko dugu nagusiki azalaren inguruko elkarrizketa, nahiz eta besteei ekarpenak egiteko aukera eskaini.
- Talde txikiko elkarrizketa antolatzeke kide bakoitzari honako funtzio hauetako bat emango diogu:
  - Moderatzailea.* Talde txikian dauden bitartean, hitz egiteko txandak emango ditu.
  - Denbora kontrolatzailea.* Irakasleak denbora muga bat jarriko du talde txikiko elkarrizketa egiteko eta ikasle horrek taldeari zenbat denbora pasa den edo geratzen den adierazi beharko dio; adibidez, denbora erdia pasa denean eta bi minutu geratzen direnean. Horretarako, kronometroak beharko ditugu.
  - Esataria(k).* Taldean pentsatutakoa adieraziko diote talde handiari.
  - Idazkaria.* Taldean esandakoak idatzi egingo ditu. Zuen ikasle taldea eginkizun hori betetzeko prest ez badago, bi esatari izendatuko ditugu eta idazkariaren rola aurrerago beteko dute. Izan ere, ikasle horrek idatziko duena, esatariak irakurtzeko eta ulertzeko modukoa izan behar du.
- Talde txikiko lana era horretan bideratzen dugun bigarren aldia denez, komeni da ikasle bakoitzari bere funtzioa gogoraziko dion irudia ematea. Irudi horiek plastifikatu, goiko aldea zulatu eta soka jartzen badiegu, lepotik zintzilikatu ahal izango dituzte ikasleek.
- Denborari dagokionez, 8-10 minutu nahikoa izango dela uste dugu. Irakasleak, bitartean, talde guztietatik pasa eta ikasleei beren funtzioa betetzen lagunduko die.
- Talde txikiko elkarrizketa bukatzean, ikasle guztiak bilduko ditugu biribilean. Talde bakoitzeko esatariak taldean pentsatutakoa adieraziko dio talde handiari. Ondoren, talde handiari ekarpenak egiteko txanda emango diogu.
- Irakasleak ikasleen interesari jarraituz eta curriculumaren beharrak aurreikusiz, azalari buruzko elkarrizketa bideratuko du (Ikusi *Elkarrizketa bideratzeko irizpideak* dokumentua). Azala aztertu duen taldearekin, honako hauek izan daitezke elkarrizketa bideratzeko galderak:
  - Zer marrazten ari dira harrian? Zuek ikusi al duzue horrelakorik? Zertarako erabiltzen ari dira sua? Zergatik ez dute argia pizten? Zertan ari da guri begira dagoen gizona? Zer da harriaren gainean dagoen gauza gorri hori?...
  - Zer daramate soinean? Zergatik jantzi dira horrela? Ezagutzen al duzue horrelako jantziekin jantzen den norbait?
  - Ezagutzen al duzue azaleko haurra? Izena ba al dakizue? Zer pentsatzen ari da Fermin? Zuek nola sentitzen zarete? Ba al duzue gogorik lehen gizakiari buruz beste gauza batzuk ikasteko?

**HAUSNARKETA.** Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

2. jarduera	<b>KOMIKIA</b>
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.3	<b>Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</b>
1.5	<b>Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b>
1.6	<b>Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</b>
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.3.1	Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuek, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.
1.5.1	Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.
1.6.3	Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka, talde handian eta talde txikian
MATERIALA	Liburua 4-5 orrialdeak
<b>AZALPENA</b>	

- Aurreko unitateko komikian zer gertatu den gogoratuz hasiko gara.
  - *Gogoratzen al zarete zer gertatu zen aurreko unitateko komikietan? Nora joan ziren? Funtzionatu al zuen makinak? Zer ekarri zuten dinosauroen garaitik? Zer uste duzue gertatuko dela orain?*
- Irakurtzen hasi aurretik, izenburuari so egingo diogu eta elkarrekin irakurriko dugu. Gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin eta esateko eskatuko diegu. Bihurrikeria hitzari erreparatuko diogu:
  - *Zer da bihurrikeria bat? Zuek egiten al duzue bihurrikeriarik? Nolakoak? Zuek beti nahita egiten al dituzue bihurrikeriak?...*
- Hurrei banaka komikia ikusteko/irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu eta beren ideiak entzungo ditugu:
  - *Zer dugu orri hauetan? (Komikia). Ezagutzen al dituzue azaltzen diren haurrak? Zertan ari direla uste duzue?*
- Ondoren, binetaz bineta, xehetasunetara joz, talde handian egingo dugu irakurketa. Hizkuntzaren eta komikiaren baliabideetan (harridurak, zurrunbiloak...) arreta jartzeaz gain, esanguratsuak iruditzen zaizkigun gertakizunei buruz mintzatuko gara:
  - *Urdintxok nahita egin al du bihurrikeria hori? Zergatik diozue hori? Jakiterik izan al dugu, hezurarekin zer geratu den? Poxek jango ote du? Oso gustura zegoela zirudien...*
- Hurrek, elkarren artean, irakurketa maila ezberdina izango dutenez, hasiera batean, taldean behatu eta irakaslearen laguntzarekin (edo irakasleak) irakurriko du(gu).
- Ziur aski, *jainkotzat hartzea* ideia haur guztiek ez dute ulertuko. Guztien artean, hurrek dituzten hipotesiak argitzen saiatuko gara.
- Gelakideen mailaren arabera, bosteko taldea(k) antolatu eta haur bakoitzari rol bat emanez (Fermin, Maddalen, Pox, Urdintxo eta lehen gizakiak) irakurriko dute talde txikian. Irakurketa hori pertsonaia bera irakurriko duten ikasleak elkarrekin saioak eginez edo irakurri ondoren egin daiteke; bestela, talde berean rolak txandaturaz bost irakurketa eginez.
- Bukaeran, sintesi txiki bat egingo dugu eta aurreko komikiekin lotuko dugu, gaiaren jarraipena eginaz.
  - *Lehen bidaian dinosauroen garaira joan ziren, orain berriz, Urdintxok nahi gabe nora bidali ditu? Ba al du zerikusirik komikian gertatu denak unitatearen azalarekin?*
- Maddaleni eta Fermini gertatuko zaiena aurreikustea eskatuko diegu, eta hipotesiak idatziz jasoko ditugu. Hurrengo komikia irakurtzerakoan gogora ekarriko ditugu.
  - *Zer uste duzue gertatuko zaiela gure pertsonaiei lehen gizakien artean pasatuko duten denboralditxoan?*
- Hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolas dezakegu: haur bakoitzari hitz bat (POX, MAKINA, URDINTXO, PIEZA...) eskatu eta komikian barrena non dagoen bilatu eta aurkitu beharko du. Ariketa hori, nahi baduzue, haurrak binaka jarrita ere egin dezakezue (saia zaitezte antzeko maila duten haurrak elkartzen). Galdetu hurrei nola konturatu diren eskatutako hitza zein zen. Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

3. jarduera	<b>KOMIKIA ANTZEZTEA</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>1.12 Ahozko literaturako hainbat testu ezagutzea eta erabiltzea nork bere kultura-nortasuna eraikitzeko eta, testu horietako adierazpen baliabide batzuk aztertuz, ulermen eta adierazpen gaitasunak aberasteko.</b> <b>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.12.2 Hainbat narrazio-testuren (ipuinak, txistek, komikiak...) taldekako kontaktetan parte hartzen du, pasarte laburrak argitasun nahikoarekin adieraziz. 3.2.8 Ahozko adierazpenarekin, musika-tresnen adierazpenarekin eta gorputz-adierazpenarekin gozaten du eta dagokionean sentimenduak adierazten ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Liburuko 4-5 orrialdeak eta antzerkia egiteko erabili daitezkeen gauzak: denboraren makina, hezur handi bat, makilak...	
<b>AZALPENA</b>		

- Komikia elkarrizketa moduan azaltzen zaigu, eta egoera antzezteko baliatuko dugu.
- Lehenik eta behin, aurreko unitatean landu genuen gorputz-adierazpena (makina barruan bueltaka) eta keinu-adierazpena (harridura eta beldurra) gogora ekarriko ditugu.
- Ondoren, komikiko pertsonaien aurpegiak (eta baita onomatopeiak eta hitzak ere) kontuan hartuta, zer sentimendu adierazten duten aztertuko dugu:
  - Poza (museorako pieza lortu baitute, Poxek berarentzat oparia duela uste du)
  - Mespretxua (Urdintxok traste zaharra esaten duenean eta besteak leloturik daudela esaten duenean)
  - Harridura (sorpresa) eta kezka edota beldurra, makina martxan jarritakoan.
  - Miresmena eta/edo harridura (lehen gizakiek makina eta pertsonaiak ikusten dituztenean eta hurrek lehen gizakien jokabidea ikusten dutenean).
- Sentimendu horiek aurpegiz nola adierazten ditugun galdetuko diegu hurrei eta hiruko edo lauko taldeetan euren moduan saioak egiteko esango diegu.
- Gero, sentimendu bakoitza zein ahoskera eta intonazioz adieraz daitezkeen probatuko dute komikia eskuan dutela. Horretarako, pertsonaia bakoitzaren hitzak (soinuak edota pentsamendua) esateaz eta antzezteaz (bai gorputzez eta bai aurpegiko keinuez) nor arduratuko den erabakiko dute (lau pertsonaiak eta lehen gizakiak: horien soinuak egiteko haur bat baino gehiago hauta daiteke).
- Ikasleek komikia antzeztuko dute taldeka. Istorioaren hariari jarraitzen dioten bitartean ez da beharrezkoa izango ikasleek liburuan azaltzen den testu bera errepikatzea. Testuaz gogoratzen ez badira, edo aukera berriak bururatzen ez bazaizkie, taldeari laguntza eskatuko diogu.
- Beste aldagai bai, irakurketa/antzezpen dramatiko kolektiboa egitea izango litzateke. Hau da: taldea bost azpitaldetan zatitu (Maddalenen taldea, Ferminena, Urdintxorena, Poxena eta lehen gizakiena) eta guztiok batera komikiaren antzezpen dramatizatua egitea (kasu horretan mugimenduak ahotsari toki utziko lioke).

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**



4. jarduera	<b>BERTSOA: LEHEN GIZAKIA</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p><b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b></p> <p><b>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibiltate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</b></p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka	
MATERIALA	Irakurgaiak 35. orrialdea	
<b>AZALPENA</b>		

- Bertso horren bidez, unitatean zehar aztertuko ditugun hainbat alderdi jartzen zaizkigu agerian. Bestalde, hurrek dituzten aurre-ezagutzak indartu daitezke. Horrez gain, errimaren behaketa egingo dugu eta -UAN bukaera duten hitzak gogora ekarri eta idatziko ditugu behaketa eta erreferentziak indartzeko. Bukatzeko, gako hitzak izan daitezkeenak bilatzera jolastuko gara, eta bertsoa abestuko dugu.
- Behar izanez gero, irakasleak bertsozale.com web-orrian, bertso doinutegian “astoa ikusi nuen II” edo “hitz egin zionian II” bilatuko du eta hurrei musika bi edo hiru aldiz entzuteko esango die. Ondoren, musika horrekin abestu daitekeen bertsoa aurkeztuko die (arbelean edo proiektatuta, baina hurrek liburua eskuan dutela ere bai).
- Irakasleak bertsoa abestuko du. Berriz abestuko du, oraingoan, ahoskatzen ari den zatia eskuarekin seinalatuz. Hurrekin batera, bitan edo hirutan abestuko du (nahi bada, zatikatuz).
- Esanahiari erreparatuko diogu: *Zer dio bertsoak?*
- Errimen behaketa bultzatuko dugu: -UAN bukaera duten hitzak esatera animatu eta arbelean idatzi eta behatu (asmatzen ez badituzte definizio errazen bidez lagundu). Adibidez: *Non gordetzen ditugu gure etxean arropak?* ARMAIRUAN. Arriskuan, buruan, lekuan, itsu-itsuan, puntuan, armairuan...
- Bertsoaz zertxobait ikasi dutela, hitz ezagunak (gakoak) bilatzera jolas dezakegu: haur bakoitzari hitz bat (koba, piztiak, sua...) eskatu eta bertsoan barrena non dagoen bilatu eta aurkituko dute. Ariketa, nahi baduzue, hurrek binaka jarrita ere egin dezakezue (saia zaitetzte antzeko maila duten hurrek elkartzeko). Galdetu hurrei, nola konturatu diren eskatutako hitza zein zen.
- Bukatzeko, bertsoa abestu guztion artean.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

5. jarduera	<b>ZER DAKIZU LEHEN GIZAKIARI BURUZ?</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p><b>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</b></p> <p><b>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</b></p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia- fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, talde txikian eta binaka	
MATERIALA	Liburua 6. orrialdea	
<b>AZALPENA</b>		

- Beste sekuentzietara jo aurretik, ikasleek gaiari buruz dakitena plazaratuko dugu oraingoan. Oso garrantzitsua da kontuan hartzea, ikasleen arteko eztabaidarako unea dela, eta ez erantzun guztiak ematekoa.
- Ezertan hasi aurretik liburuko orrialdearen behaketa bideratuko dugu, elementu bakoitzaren funtzioa azpimarratuz: goian eta ezkerrean azaltzen den galderaren esanahia eta galdera-ikurra, orrialdearen erdialdean azaltzen den txartela, lauki horietan dauden testuak eta marrak dituzten lauki grisak. Inguruan dauden lerroetan lehen gizakiei buruz dakitena idatziko dugula esango diegu ikasleei.
- Kontzeptuak eta euren arteko loturak nola adierazten diren, ez diegu oraingoz azalduko. Oraingoan ere, unitatearen bukaeran denon artean kontzeptu-mapa osatuko dugu, eta orduan izango dugu aukera kontzeptu-mapa zertan datzan era xume-xumean lantzeko. Beraz, ez une honetan, ez bukaeran, ez gara arituko, kontzeptu-mapak nola eraiki irakasten.
- Ikasleak launaka jarriko ditugu eta ikasleei lehen gizakiari buruz zer dakiten jakiteko galdeketa bat antolatuko dugula esango diegu. Irakasleak lehenengo galdera idatziko du arbelean, hitz gakoa azpimarratuz. Ondoren, irakasleak talde guztiei galdera luzatuko die. Ikasleek, orduan, denbora-tartea izango dute beren artean erantzuna adosteko. Erantzuna ez badakite, egiazat har daitekeen hipotesia asmatu dezakete. Talde guztiek txandaka, talde txikian adostutakoa talde handian plazaratuko dute. Bukatzeko, haurrek banaka edo binaka bere liburuetan taldean entzundakoa edo beraiek pentsatzen duena idatziko dute. Beraz, ikasleek hitzak edo hitz pareak idatziko dituzte. Bikoteak egiterakoan idazketamaila antzekoa duten ikasleak elkarrekin jartzea komeni da. Bestela, ikasle batek bestea tutorizatzeko arriskua dago. Idazketa alfabetikora iritsi ez diren ikasleen produkzioak tarteka, ahal den neurrian, transkribatzen jarraituko dugu.
- Galdera guztiekin jarraituko dugun prozesua honako hau izango da: galdera irakurri, hitz gakoa biribildu, galdera luzatu talde txikiei, talde txikietan erantzunak adostu, talde bakoitzeko erantzuna entzun eta banaka edo binaka erantzunak idatzi. Talde txikietan dauden bitartean, irakaslea inguruan ibiliko da, zer dakiten eta zer interesatzen zaien identifikatzeko asmotan.
- Bukatzeko, idatzi ez dugun zerbait ote dakiten galdetuko diegu. Ikasleen ekarpenak arretaz entzun eta positiboki balioetsiko ditugu.
- Liburua itxi aurretik txoko zuriaren ikurrari erreparatuko diogu. Zertarako? Gehiago ikasteko eta gehiago jakiteko.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

6. jarduera	<b>MARRAZKI BIZIDUNAK: HARRIKETARRAK</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntua, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Marrazki bizidunak, telebista eta DVDa edo proiektagailua eta pantaila	
<b>AZALPENA</b>		

- Gerora, ezagutuko ditugun lehen gizakien bizitzaren hainbat alderdi aldera dezakegu hurrek hain gustuko dituzten marrazki bizidunetan ikusten dituzten elementuekin. Umore tonuan girotzen hasteko aukera ezin hobea eskaintzen digute marrazki bizidun horiek. Garai bateko, gaur egungo eta fikziozko elementuei buruzko elkarrizketa bideratuko dugu, bideoa ikusi aurretik, bitartean eta ondoren.
- Bideoak interneteko helbide honetan aurkituko dituzue: <http://marrazkiak.99k.org/Harriketarrak.html>
- Txanela.net-en 3. unitatean 8. jardueran marrazki bizidunetako pertsonaien aurkezpena eta ikasleek margotzeko pertsonaien marrazkiak aurkituko dituzue.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

7. jarduera	<b>EGIA EDO GEZURRA</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka	
MATERIALA	Lan-koaderno 20. orrialdea	
<b>AZALPENA</b>		

Deskodetzean saiakera eginez, aurre-ezagutzen inguruan jardungo dugu. (Prozedura honen beharra daukazuen ala ez taldearen irakurketa-mailaren arabera erabaki ezazue).

- Guztiek lan-koaderno 20. orrialdearen goiko aldean dagoen agindua irakurriko du eta hurrei (antzeko irakurketa-maila dutela) binaka jartzeko adieraziko die.
- Binakako lana egin aurretik, irakasleak arbelean, edota proiektatuz bi sarrerako taula honen funtzionamendua adieraziko die. Horretarako, lehenik eta behin EGIA eta GEZURRA non jartzen duen banaka pentsatzeko eskatuko die. Pentsatu ondoren, bikotekideari adierazteko eskatuko die, eta nola asmatu duten; irakurtzen ez badakite, zer arrasto erabili duten adierazteko eskatuko die: bazterketaz, E-z hasten delako, nire izena Garazi delako, etab. Saiatu gelako erreferentziekin erlazioan jartzen bi hitz horiek.
- EGIA hitzaren azterketa ere bultzatzea dezakegu: idatzi, txalokatu, silabetan banatu, silaba bakoitza erreferentzia batekin erlazionatu. Gauza bera egin daiteke GEZURRA hitzarekin. Hitz horrek joko handia eman diezaguke azken silabari heltzen badiogu: -RRA (txakurra, satorra/jatorra/atorra, arra, izarra, baldarra, sugarra, sukarra...). Eta gainera sortzen zaizkigun hitzen arteko konparazioak eginez hainbat fonema aislatzeko aukera daukagu).
- Gero, errenkadetan jartzen duenari, LEHEN GIZAKI esaldi bakoitzean bilatzeko eta arkatzez inguratze eskatuko diegu ikasleei. Arbelean LEHEN GIZAKI idatzi eta silabetan ahoz zatitu ondoren, idatzia ere zatitu. H letra mutua dela adierazi eta ez balego bezala irakurtzen dugula esan (nahiz eta idatzi, idatzi egin behar den).
- Irakasleak, esaldiak banan-banan irakurriko ditu eta hitz gakoa nabarmenduko du: indar bereziz intonatu, silabak markatu... "Enbor-mobila" lehenengo esaldian, "haitzuloetan" (gogoratu H mutua dela eta bigarren letrari erreparatu behar diotela) bigarren esaldian, "ordularia" hirugarrenean eta "ehizatu" azkenengoan. Hitz gako hori bilatu (irakasleak beharren arabera behaketa bultzatuko du, soinua-letra erlazioa bideratuko du) eta gorri edota beste kolore batez inguratuko dute ikasleak.
- Beharra ikusiz gero, hitz horiek arbelean idatzi, txalokatu, silabetan zatitu eta guztion artean irakurri berriro.
- Gero, eta binaka oraingoan, aurretik kolorez inguratu ditugun hitzak arrasto gisa erabiliz, esaldiak irakurtzeko, egia ala gezurra dioten erabakitzeko eta gurutzea dagokion tokian jartzeko eskatuko zaie hurrei.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

8. jarduera	<b>LEHEN GIZAKIAREN TXOKOA</b> (Ikusi <i>Txoko zuria</i> dokumentua)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p><b>1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea eskainitako jarraibideen laguntzaz.</b></p> <p><b>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</b></p> <p><b>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</b></p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.4.3 Era ulergarrian eta erraztasun nahikoarekin adierazten ditu ideiak.</p> <p>1.6.3 Hitzezkoak ez diren elementuen eta testu-ezaugarri batzuen (irudiak, tipografia, espazioaren banaketa...) esanahia egoki interpretatzen du.</p> <p>2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Jardueraren arabera talde handian, txikian edo banaka	
MATERIALA	Liburuko 6. orrialdea, gidaren eranskinetan dagoen familientzako gutuna eta gaiaren inguruko materiala: posterrak, argazkiak, informazio-liburuak, mozorroak, DVDak...	
<b>AZALPENA</b>		

- Oraingo honetan txoko zuria, lehen gizakiaren txokoa bihurtuko dugu. Beraz, txokoa antolatzen hasiko gara.
- Ikasleekin batera izenburua idatzi, apaindu eta zintzilikatuko dugu. Bestalde, irakasleak ekarritako zerbait txokoa kokatuko du, ikasleak txokoaren izaera irudikatzen has daitezten.
- Gurasoei eskutitz bat idatziko diegu Maddalen eta Ferminen izenean, landu behar dugun gaia agertzeko eta materiala eskatzeko. Gogoratu, etxera bidali aurretik guztion artean gutuna irakurri behar duzuela. Gutun hori gidaliburuaren bukaeran aurkituko duzue.
- Hainbat material jarri dezakegu txokoa osatzeko: gaiaren inguruko liburu espezifikoak, ipuinak, argazkiak, marrazkiak, mozorroak, DVDak, berriak, kobazuloei buruzko informazioa, hondartzan aurkitutako oskolak, maskorrak, barraskiloen oskolak... Apaingarriak egiteko, lehen gizakien modura, animalien margoak egiteko materiala ere bai: ikatza, sutan belzututako makilak, koloretako hautsak, etab.
- Txoko horretara hainbat hizkuntzatan argitaratutako materiala etorriko zaigu, dudarik gabe. Gaztelania lantzeko premia duzuen tokietan, txokora ekarritako ipuinez, bideoez, etab. balia zaitezke, proposamena indartzeko. Ingelesaren kasuan beste hainbeste egin daiteke.
- Irakasleak ziurtatu beharko du txokoa ondo hornituta dagoela; batez ere, taldeka lana egiteko talde bakoitzeko informazio-liburu bat dagoela ziurtatuko du. Beraz, ikasleek ekartzen ez duten materiala ikastolak eskuratuko du, edo beste geletara ekarritakoa bilduko dugu, hainbat jarduera egiteko orduan. Irakasleok ikasleak materiala ekartzera eta aurkeztera animatuko ditugu. Horrela, ekarritako materiala besteen eskura jarriz eta azalduz, txokoa eraikitzen parte hartuko dute. Irakaslearen lana, kudeaketa erraztuko duten tresnak eskaintzea eta lanen jarraipena egitea izango da.
- Ikasleek, materiala ekarri, proposatzen den jardueraren arabera baliatu eta aurkezpenak egingo dituzte. Ikasle guztiek ezingo dute aurkeztu txokora ekarritako materiala. Hala ere, aurkezpenak egin dituzten ikasleen izenak idatziz jasoko ditugu. Ikasleek, irakasleak aurrez prestatutako tresnak erabiliz, ekarritako materialaren eta aurkezpenen kontrol idatzia jasoko dute. Bestalde, arratsaldero, etxera joan aurretik, arduradunak txokoa txukuntzeaz arduratuko dira.
- Bestalde, ikurra liburuan ikusten dugun bakoitzean, lehen gizakiaren txokora joko dugu informazio bila, eta halaxe jakinaraziko diegu ikasleei.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

9. jarduera	<b>PROIEKTUAREN AURKEZPENA: ANTZERKIA</b> (Ikusi <i>Elkarrizketa</i> dokumentua eta 12, 38 eta 42. jarduerak)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikuspuntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka eta talde handian	
MATERIALA	Liburua, 7. orrialdea	
<b>AZALPENA</b>		

- Lehen gizakiaren gaia landu bitartean informazioa bilduko dugu eta euren bizimoduari buruzko antzerki/agerraldi bat antolatuko dugu oraingoan (ikus 12. Jarduera). lehen gizakiaren ehiza irudikatzen duen antzezpena egitea proposatzen zaizue, Oreka TX entzunaldia erabiliz, ehizaren urratsak eta dantza antzetzeko. Antzerkia egingo dugula baliatuz, ikastolako haurrak eta gurasoak gonbidatu ditzakegu.
- Proiektua garbi edukitzea eta lana burutzeko ideiak aurkeztea da gure gaurko lana. Proiektuaren garapeneko lehen urrats nagusia dugu honoko hau. Hau da, haurrek zer egin behar duten jakin eta haren inguruan pentsatzen jartzeko lehen unea da. Aurrerago, proiektua planifikatu, ekin, komunikatu eta balioetsiko dugu.
- Liburuak ireki, eman denbora orrialdea eta elementu guztiei (argazkiak, ikonoa, proiektua, globoak eta dekorazioa, esku-markak eta beste) ondo behatzeko. Ondoren, gidatutako behaketa egingo dugu.
- Bonbillari behatu eta zer adierazten duen galdetu. Esan ikasleei aurreko unitateetan bezala, proiektu bat egingo dugula. Gogora ekarriko dugu denboraren makina egiteko edo dinosauroen garaiko maketa eraikitzeke eman genituen urratsak, hau da, proiektuaren aurkezpen-orriari behatu (planifikatu), liburuan ikusitakoa edota ikasitakoa gure proiektuan erabili edo aplikatu (ekin), gure lana beste batzuei erakutsi (komunikatu) eta egindako lanari buruzko iritzia liburuan idatzi (balioetsi). Beraz, oraingoan ere antzeko prozesuari jarraituko diogu.
- Poxek ematen digun informazioa aztertuko dugu:
  - Zer esaten ari zaigu Pox?
  - Esaten duen horretan hitzen bat ezagutzen al dugu? Behatu globoko 6. hitzari (Irakasleak hitza arbelean idatziko du). Nola hasten da? Zer jartzen ote du? Haurrek ezin badute irakurri, irakasleak egingo du.
  - Behean, eskuinean, badago beste globo bat. Irakurriko al dugu? Antolatzea zer den badakigu, baina zer ote da gidoia?
- Globoak aztertu ondoren, irudiak aztertuko ditugu:
  - Zuen ustez zertan ari dira argazki txikietako haurrak? Zertarako egiten dute hori?
  - Zer azaltzen da eskuineko argazki txikian? Nola dago eginda?
  - Zer ikus dezakegu argazki handian? Nola daude jantzita, zuek bezala? Zer dute eskuetan? Pozik al daude? Zergatik uste duzue pozik daudela?
  - Zer izan daitezke edota zer adieraz dezakete esku-marka horiek? Eta alboan dauden marrazkiek?
- Galderei erantzunez, interesgarria izango litzateke denon artean aurreikustea eta hitz egitea nolakoa izango den proiektua: zer material beharko dugun, zer elementu uste dugun jarriko ditugula bertan, etab.
- Liburuan proposatzen den lanaren prozedura-emanaldia pixkana-pixkana gauzatzea joango da. Horrela lana egiteak, zentzua ematen dio egunerokotasunari, haurraren begietan.
  - Beno, beno, uste dut orain ere asko pentsatu beharko dugula eta lan handia egin beharko dugula gure antzezpena dotore-dotorea izan dadin, baina zuek artistak zarete horretan!

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

10. jarduera	<b>ZER JAKIN BEHAR DUGU ANTZERKIA EGITEKO?</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikus puntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka eta talde handian	
MATERIALA	Ikasleen galderak eta proposamenak idatziz jasotzeko paper zuria (1 m x 75 cm ingurukoa)	
<b>AZALPENA</b>		

- Jarduera honetan, aldagai bat sartu dugu. Alegia, unitateak berak proiektuarekin duen mendekotasuna tarteko, ikasi beharrekoak lotura hertsia du burutu beharreko eginkizunarekin. Beraz, proiektua gauzatzeko, ustez, zer ikasi beharko dugun plazaratuko dugu jarduera honetan. Ondorioz, tresna horrek bi zati izango ditu: bat, proiektua gauzatzeko jakin beharrekoak, eta, bigarrena, ikasleen interesei erantzuteko, gaia hedatzeko eta curriculumaren beharrak asetzeko ikasleek ikasi edo jakin nahi dutena.
- Erantzunak eta galderak idatziz jasoko ditugu ikasleen begi-bistan egongo den poster handi batean, nola hala ikasnorabidea antolatuz. Ikasnorabidearen funtzioa eta helburua ikasleek ikasten ari direnaz jabetzea izango da. Lantzekoa alde aurretik ezagutuz, zer, nola eta zertarako ikasiko duten, eta landu ostean, ikasitakoari beste zentzu bat emateko aukera izango dute ikasleek. Beraz, joan etorrian erabiliko dugun tresna izango da. Edozein une izan daiteke egokia ikasnorabidera jotzeko, egiten ari garenaz jabetzeko.
- Ikasnorabidearen bigarren atala, hau da, ikasleek ikasi nahi/behar dutena, gaia jorratzen ari garen bitartean garatzeaz gain, unitatearen bukaerako kontzeptu-mapa eraikitzeke ardatz moduan erabiliko dugu. Bukaerako lan hori osatzeko haurrak bizpahiru lagunek osatutako taldetan elkartuko ditugunez, komeni da orain aurreikustea talde bakoitzak ikasnorabideko galdera bati erantzuna eman beharko diola. Horren ondorio zuzena da, galdera kopurua eta talde kopurua bat izaten ahalegintzea. Galdera kopurua oso ugaria bada, irakaslearen lana izango da galdera horiek multzokatzea ideia nagusien arabera eta xehetasunak galdera horien azpiatal moduan hierarkizatzea.
- Liburuaren orrian azaltzen den bezala, biribilean eseriko gara eta ikasleei bi galdera hauek luzatuko dizkiegu:  
- *Zer ikasi behar dugu antzerkia egiteko? eta Zer ikasi nahi duzue lehen gizakiari buruz?*
- Ikasleei denbora-tarte bat isilean pentsatzeko denbora eman ondoren, beren ekarpenak idatziz jasoko ditugu. Goian esan bezala, irakaslearen lana izango da galdera horiek multzokatzea ideia nagusiaren arabera eta xehetasunak galdera horien azpiatal moduan hierarkizatzea. Unitatearen garapena zerbait moldatu beharko duzue haurrek planteatzen dizkiguten interesen arabera. Nola nahi ere, gidaren hasieran, egileok proposatzen dugun ibilbidearen edo sekuentzi tematikoaren eskema aurki dezakezue. Beraz, haurren ideiak horren arabera bideratu eta antolatu ditzakezue.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

11. jarduera	<b>ABESTIA: URKI, URKI</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b> <b>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 3.2.2 Abesti errazak aho batez interpretatzen ditu eta buruz ikasten ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 8. orrialdea eta abestien CDa (14. pista)	
<b>AZALPENA</b>		

- Gaiaren abestia ikasiko dugu.
- Lehenik eta behin CDa jarriko dugu, ikasleek abestia entzuteko.
- Irakasleak galdetuko die ea abestia ikasi nahi duten. Erantzuna baiezkoa izango delakoan, musikarik gabe ikasleek hitzak esaldika errepikatuko dituzte. Horren ostean, berriro errepikatuko dituzte esaldiak musikarekin. Esaldiak keinu jakin batekin lotuz, hitzak hobeto gogoratuko dituzte.
- Abestia ikasi ondoren, liburuan irakurriko dugu. Tartetxo bat eskainiko diegu ilustrazioak eta testua begiratu/irakurri dezaten. Testua irakurtzen hasi aurretik, marrazkiek haurrak pentsatzen jartzeko ematen diguten aukera balia dezakegu honako galdera honen bitartez:
  - *Haitzulotar baten abestia bada, eta abestiak musika-tresnarik aipatzen ez badu, zergatik azaltzen dira marrazkietan musika-tresnak?*
- Ikasleei testuan arreta jartzen laguntzeko, abestia proiektatu edo arbelean idatz daiteke.
- Kodearen inguruko behaketa bultzatzea dezakegu:
  - *Gure gaiarekin zerikusia duten hitz batzuk bilatu eta biribilduko ditugu: ehiztari, haitzulo, geziak, hormak margotu...*
  - *Nola du izena abestiko protagonistak? Gure gelan ba al da izen hori duenik? Nola idazten dugu URKI? Eta URKO, eta EKI...? –Ki bukaera duen beste hitzik ezagutzen al duzue? Eta UR hasiera duenik? Idatziko al ditugu?*
- Musikako lan-koadernoko 3.6. (“Harria eta egurra”) fitxan, antzerkia egiteko orduan erabilgarriak izan daitezkeen musikako tresnak eraikitzeke proposamen bat daukazue.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**



12. jarduera	<b>ENTZUNALDIA</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>3.1 Musika entzumen bidez hautematea eta ulertzea.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
3.1.6 Ingurumeneko soinuak aurkitzeko jakin-mina du, eta hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuten gozaten du.		
3.1.9 Entzuketetan eta beste hainbat musika-emanalditan izan beharreko jokabideak ezagutzen eta errespetatzen ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Jardueren CDa (15. pista)	
<b>AZALPENA</b>		

Gure lehen gizakiek janaria lortzeko ehizara joaten zirela eta, oraingo honetan Oreka TX euskal txalapartarien taldeko *Keinuka ilargiari* abestia entzun eta ehiza-saio bat irudikatuko dugu. Beraz, komeni da ikasleei antzerkiaren nondik norakoak (ikus gidoia) adieraztea eta musika entzuten hastea, saioaren une edo antzerkiaren egoerak identifikatzen hasteko. Izan ere, entzunaldian landuko diren eszenak eta ekintzak izango dira gidoiaren osagai nagusiak.

• **Konpositoreen txokoa**

Oreka TX-ko partaideen argazkiak (Harkaitz eta Igor) lortzen saiatuko gara. Diskoaren karatulan agertzen dira. Biografia wikipedian aurkituko duzue. Beraz, elkarrizketa bideratu dezakegu:

- Zer desberdintasun aurkitzen dituzue orain arte "Gure konpositoreen txokoa" jarri ditugun musikarien eta horien artean?
- Zergatik ez dugu Oreka TX-ko partaideen biografia paperezko entziklopedietan aurkitu?
- Nongoak dira konpositore horiek?
- Zer adierazi nahiko du abestiaren izenburuak?
- ...

• **Antzezipena**

Unitate honetako proiektuan lehen gizakiaren ehiza irudikatzen duen antzezipena egitea proposatzen zaizuenez, Oreka TX-ko entzunaldia erabiliko dugu ehizaren urratsak eta dantza antzezteko. Antzezipena musikarekin bat adierazteko, koreografia txiki bati jarraitzea proposatzen dizuegu. Hona hemen urratsak adierazten dituen gidoia:

Pertsonaien banaketa gutxi gorabeherakoa da, ikasle kopuru handia izanez gero, begiztatzaile, mamut edo ehiztarien taldeak ere antola daitezke.

Pertsonaiak: txalapartariak: 2; adarra: 1-2; begiztatzaile talde bi: 3-4 lagun taldeko; mamutak 2 (bikoteka edo hirukoteka mamut bat osatuz); eta ehiztariak: 6-8.

- A. 0:00-0:48: Txalaparta + Begiztatzaileak
  - 1. begiztatzaileak: 2 Valkarlo + begiztatu + 2 Valkarlo + begiztatu
  - 2. begiztatzaileak: Itxaron + 2 Valkarlo+begiztatu +2 Valkarlo
- B. 0:48-1:10: begiztatzaileak + txalapartaria + adarra
  - Mamutak ikusi
  - Elkarrizketa
  - Abisua
- C. 1:10-1:33: mamutak + adarra + ehiztariak
  - Mamutak ilaran ateratzen dira + adarra jotzen dute
  - Ehiztariak deia entzun eta ilaran dantzan mamuten ingurura
- D.1:33-1:54: ehiztariak + mamutak
  - Ehiztariak mamutak inguratzen dituzte
- E. 1:54-2:05: ehiztariak + mamutak
  - Eraso
- F. 2:05-2:27: ehiztariak + mamutak
  - Mamuten inguruan dantza
- G. 2:27-3:10: ehiztariak + mamutak
  - Taldekoek mamut bat inguratzen dute. Beste mamutak badoaz.
- H. 3:10: ehiztariak + mamutak
  - Eraso... hik!
  - Mamuta erortzen da poliki-poliki
  - Bukaeran ehiztarien garaipen-keinuak

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

13. jarduera	<b>SUA</b> (Ikusi <i>Txoko zuria</i> dokumentua)
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.	
1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.	
2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketa, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.	
1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
2.5.6 Denboran zehar gizakiak bere bizimoduan izan dituen bizi-baldintzen aldaketaz jabetzen da eta horiek egungo bizimoduari ekarri dizkieten onurak balioesten ditu.	
2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, talde txikian eta banaka
MATERIALA	Liburuko 9. orrialdea eta lehen gizakiaren txokoko liburuak
<b>AZALPENA</b>	

Orrialde horri behatuz gero, suaren inguruan jardungo dugula nabarmena da, baina, ez dugu ezer idatziko txoko zuriko liburuak behatu arte.

- Utzi tartetxo bat banakako behaketa/irakurketa egiteko.
  - *Zertan ari da Pox? Nola dakigu abesten ari dela? Zer ari da abesten?*
  - *Orrialdearen erdian dagoen argazkiak zer irudikatzen du? Zergatik ote dago argazki hori hor?*
  - *Irakurriko al dugu biribil berdean jartzen duena? (galdera ikurrari beharazi) Galdera bat egiten digute. Erraza da galdera horren erantzuna ezta?*
  - *Irakur dezagun orain beheko galdera, baina ez dugu erantzungo txoko zuriko liburuei begiratu arte.*
- Txoko zuriko liburuak banatuko dizkiegu biko/lauko talde bakoitzari, gutxienez bat behintzat emanaz. Ikasleek sua azaltzen den irudia edo testua aurkitzea izango dute helburu. Ondoren aurkitutako informazioa taldean lantzea komeni da.
- Hausnartu taldean, suaren erabilerak orduko bizi-baldintzei ekarri zien onuraz.
- Bakarka idazten hasi aurretik idatziko ditugun hitzak (berotzeko, sukaldatzeko, piztiak uxatzeko...) keinuekin lotzea komeni da. Horrela, errazago gogoratu dute zer idatzi nahi duten.
- Ondoren, bakoitzak bere liburuan suaren hiru funtzio (berotzeko, sukaldatzeko, animaliak uxatzeko...) idatziko ditu; bakoitza lerro banatan idazteko adieraziko diegu ikasleei.
- Bukatzeko, proiektuaren ikurrak zer dioen galdetuko diegu. Erraz asmatuko badute ere, eginbehar hori beste une baterako (ingelesko jarduera) utziko dugula esango diegu. Nolanahi ere, benetako surik egin gabe (arriskuaz hitz egin) antzerkirako "sua" nola egin dezakegun pentsatzeko eska diezaiekegu.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

14. jarduera	<b>JO DEZAGUN SUGARRAK GARELA</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>3.2 Musika bidez adieraztea (interpretazioa) eta sortzea.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
3.2.8 Ahozko adierazpenarekin, musika-tresnen adierazpenarekin eta gorputz-adierazpenarekin gozaten du eta dagokionean sentimenduak adierazten ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde txikian	
MATERIALA	Txalaparta musika, linterna bat edo proiektagailuaren argia	
<b>AZALPENA</b>		

- Gorputz-adierazpena lantzeko jolas hau egin dezakegu: launaka bildu, txalaparta-musika (baita beste musikak ere) ipini, eta gure eskuak eta besoak baliatuta, sugarrak bagina bezala mugituko gara.
- Besoak gora eta behera mugituko ditugu, hatzak ondo astinduz, gure gorputzaren zati horiek dituzten aukerak ondo aztertuz. Lekutik mugitzen ez bagara hobe.
- Posible bada gela ilundu eta linterna batekin, edo proiektagailuaren argia baliatuta, gure besoen itzala horma batean proiektatu. Gela erdiak launaka ariketa hau egiten duen bitartean, beste erdiak egindako lanari behatuko dio. Gero, jakina, txandakatu eginkizunak.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

15. jarduera	<b>LET'S MAKE A FIRE</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>To participate actively in oral activities.</b>		
<b>4.1 To participate actively in group work.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Uses basic vocabulary appropriate to context. 1</li> <li>- Transfer the language from the format to other contexts. 1</li> <li>- Uses non linguistic resources to convey meaning. 1</li> <li>- Participates actively in group work. 2</li> </ul> <p>1. Eleanitz project, Hocus and Lotus materials, teachers guide 2. Txanela proiektua, Ziklo bukaerako helburuak eta ebaluazio irizpideak dokumentua</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Big group and small groups	
MATERIALA	Book page10, fire templates, cardboard, tempera paint, brushes and scissors.	
<b>AZALPENA</b>		

In the previous activity, children have been working on how the stone age-man was using fire in everyday life. Now we are going to make a cardboard fire for the show they are going to perform at the end of the unit.

In "Fire" (The adventures of H and L story number 2) you have been going through an instruction text, a recipe to make pancakes. In this activity we are going to help children to transfer part of the language they learnt in the story ( how to list the items required and how to sequence steps to make pancakes) to a new context: how to list the items required and how to sequence steps to make a cardboard fire.

**Before the lesson:**

- Make enlarged photocopies of the templates you need according to the number of pupils you have. (1 template for 3 pupils)
- Decide who is going to do what, because you do not need 25 fires.
- Get all the material you need to carry out the activity.

**Shared reading** of the book: Ask the pupils to look at page 10 and give them a few moments to look at it. We are going to invite the children to read the sentences, one at a time, and work out the meaning with the whole group.

- *What is Reddy saying? Let's all read. Reddy is talking about a fire.*
- *Do you remember the story, Lotus is at home making pancakes and then the kitchen caught fire.*
- *What's this? (pointing at the photograph at the bottom of the page) Yes it's a fire!*
- *Do you want to make a cardboard fire for your show, so that you can all dance around the fire?*

**Items required:** *What do we need? When Lotus was making pancakes, she said: "I need a bowl, flour, milk and eggs. Now, what do we need to make a fire? I need..."*

- Elicit from the pupils or teach them the essential vocabulary they need for the activity they are going to do. We need cardboard, scissors and tempera paint. What colour is the fire? Yes, its yellow, red and orange.
- Make different pupils responsible for the different materials. Every time the others need something they have to go to the relevant monitor and ask for what they need. Exemplify, taking a person, going with them and bringing all the scissors to their desk. Take another pupil, go with them to the scissors monitor and role-play the dialogue they need. When the session finishes each monitor must collect all the items they are in charge of and make sure everything is in order.

**Sequenced steps:** *What do we do to make a fire? In the story Lotus said to make pancakes:" first light the gas, then put the pan on the cooker and finally put some batter in the pan" O.K. Look at the pictures. What do we have to do? First, draw and cut. O.K. we have to draw around the template and cut the cardboard out. Then, colour the flames. Yes, we will colour the cardboards on one side, let them dry and then we will colour the other side. Finally fit the flames in. Yes, finally we fit in the flames to make a fire.*

- You might group them in threes and make different pupils responsible for different steps: drawing, cutting and colouring.

**Following the instructions:** Now, provide the equipment and let the children follow the instructions to make a fire. You will not have time to colour both sides in a 45 minute session. So, your pupils can colour one side of the flames. Then you can ask the tutor to give them time to colour the other side and finally fit the flames in the following English lesson.

<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>
--

16. jarduera	<b>NON BIZI ZIREN?</b> (Ikusi <i>Txoko zuria</i> dokumentua)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.8	<b>Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</b>	
2.5	<b>Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.</b>	
2.9	<b>Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</b>	
4.1	<b>Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</b>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.8.1	Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
2.5.6	Denboran zehar gizakiak bere bizimoduan izan dituen bizi-baldintzen aldaketaz jabetzen da eta horiek egungo bizimoduari ekarri dizkioten onurak balioesten ditu.	
2.9.3	Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.	
4.1.1	Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.	
4.1.8	Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburuko 11. orrialdea; Kobazuloa gelan egiteko: soka, enbalatzeko paper marroia, mahai bat, zeloa eta hostoak; Gela dekoratzeko: ikusi hurrengo jarduera.	

### AZALPENA

- Jarduera honetako izenburuan egiten zaigun galderaren erantzuna irudiak ikustearekin errazten bada ere, informazio-iturrien erabilera bultzatuko dugu. Beraz, liburuko orria behatu/irakurri ondoren, lehen gizakien txokoko liburuak aztertuko ditugu kobazuloen eta txabolen irudi gehiago ikusteko.
  - Txoko zuriko liburuak banatuko dizkiegu biko/lauko talde bakoitzari, gutxienez bat behintzat emanez. Ikasleek kobazuloak edo txabolak azaltzen den irudia edo testua aurkitzea izango dute helburu. Ondoren, aurkitutako informazioa taldean lantzea komeni da.
  - Aztertu taldearekin kobazuloak uztea eta txaboletan bizitzeak orduko bizi-baldintzei ekarri zien onura.
- Proiektuari begira jarriko gara orain. Antzetzpenerako aukeratu duzuen espazio horretan, antzerkirako dekoratua egingo dugu. Bi aukera ditugu:
- Antzetzpenerako aukeratu duzuen gela horretan bertan haitzuloa egitea, liburuko argazkian azaltzen den eran.
  - Antzetzpenerako aukeratu duzuen gela haitzuloa balitz bezala apaintzea.
- Liburuko argazkian azaltzen den kobazuloa egitea erabakitzen baduzue, helbide honetan aurkituko dituzue jarraitu beharreko urratsak:
- <http://www.batcon.org/index.php/media-and-info/bats-archives.html?task=viewArticle&magArticleID=916>:
- Kasu honetan irakasleak prest edukiko du papera jartzeko euskarria. Ikasleen aurrean papera soken gainetik jarriko luke eta ikasleen lana hostoak biltzea eta itsastea izango litzateke.
  - Bukatzeke, kobazuloa eraikitzeke emandako urratsak idatziko dituzte. Horrela eginez gero, hau da, lehenengo kobazuloa eraiki eta ondoren prozesua idatziz jaso, ikasleek aski ezaguna izango dute idatzi beharrekoa eta informazio hori kodetzea izango da ikasleen lan bakarra. Beraz, arreta berezia jarri ahal izango dute kodean.
  - Prozesua hiru edo lau zatitan banatu (hiru badira "ondoren" edota "horren ostean" lerroak libre utzi), ahoz planifikatu idatzi beharrekoa (beharrezkoa bada erreferentziekin lotuz idatzi behar duten hori) eta azkenik banaka (edota binaka, aurreko idazketa-jardueran egin duzuenaren arabera aldatzea komeni baita) liburuan idatziko dute
  - Gela kobazuloa balitz bezala apaintzea erabaki baduzue, komeni da hurrengo jarduerari begiratzea. Labar-arte delata eta, biltzeko paperean hainbat "artelan" egitea proposatzen da. Material horixe bera erabiliz haitzuloaren forma lor daiteke papera bolumena hartzeko moduan manipulatu, tolestuz eta gelako horman itsatsiz.
  - Hurrengo orrialdearekin lotuta proposatzen diren jarduerak egin ondoren, idatziko genituzke gure gela kobazulo bihurtzeko jarraitu ditugun urratsak. Horrela eginez gero, hau da, lehenengo gela apaindu eta ondoren prozesua idatziz jaso, ikasleek aski ezaguna izango dute idatzi beharrekoa, eta informazio hori kodetzea izango da ikasleen lan bakarra. Beraz, arreta berezia jarri ahal izango dute kodean.
  - Prozesua hiru edo lau zatitan banatu (hiru badira "ondoren" edota "horren ostean" lerroak libre utzi), ahoz planifikatu idatzi beharrekoa (beharrezkoa bada, erreferentziekin lotuz idatzi behar duten hori). Azkenik, banaka (edota binaka aurreko idazketa-jardueran egin duzuenaren arabera aldatzea komeni baita) liburuan idatziko dute.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

17. jarduera	<b>ARTELANAK</b> (Ikusi <i>Txoko zuria</i> dokumentua)
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
	<p><b>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</b></p> <p><b>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</b></p> <p><b>3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.</b></p> <p><b>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b></p> <p><b>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</b></p>
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
	<p>1.2.1 Hainbat jarduera egiteko emandako ahozko aginduen edo jarraibideen arabera jokatzeko du. (Irizpide hau ia jarduera guztietan behatzeko aukera dugunez, zenbaitetan bakarrik azalduko da analisisian).</p> <p>2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.</p> <p>3.3.4 Hainbat garai eta kulturatako irudiak eta arte-objektuak era bideratuan aztertzen ditu eta irudi eta objektu horiek sortu ziren testuinguruaren ezaugarriak buruzko jakin-mina adierazten du.</p> <p>3.4.8 Materialak manipulatu eta aztertuz gozaten du.</p> <p>4.1.7 Lan-eritmo egokia izaten laguntzen du, eta saiatzeko da iraunkortasunez eritmoari eusten.</p> <p>4.1.8 Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.</p>
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka
MATERIALA	Liburuko 12. orrialdea, bideoa, kartoi mehea, argizariak, puntzoiak, tenpera-pinturak, espraia eta zotz lauak

### AZALPENA

Liburuko orrialdean agertzen diren bi argazki, gure arbasoek Ekainen eta Santimamiñen egindako artelanak dira.

- Utzi haurrei tartea orrialdeari ondo behatzeko.
- Azalpen-testua irakurri ondoren, bi artelaren artean konparazio txiki batzuk egingo ditugu:
  - Zer animalia mota agertzen da batean eta zein bestean?
  - Zergatik uste duzue labar-margoetan animalia ezberdinak ateratzen direla?
  - Zer kolore mota agertzen da batean eta zein bestean?
  - Zergatik erabiltzen ote zituzten mota horiek bakarrik?
  - Zer nolako materialez margotzen ote zituzten irudi horiek?
  - Zer jakin dezakegu margo horiei esker?
- Informazio-iturrietara joko dugu: lehen gizakien txokora (talde txikian) eta bideoa (talde handian). Txokoa aurkitutako informazioa taldearekin partekatu. Bideoan, Euskal Herriko hainbat haitzulotan aurkitutako labar-arteari egiten zaio aipamena: zer margotzen zuten, zer kolore erabiltzen zituzten, grabatuak eta harriaren erliebearen eta formaren aprobezamenak... Aurkitutako informazioarekin taldean elkarrizketa sortzea komeni da.

Proiektuari begira jarriko gara gero. Aurreko orrialdean ikusi dugu lehen gizakiak haitzuloetan bizi zirela hasieran, eta han, haitzuloetan margoak egiten zituztela. Informazio horrekin dagoeneko, gure dekoratua nola antolatu erabaki dezakegu. Hirugarren argazkiak, gure proiekturako bidea ematen digu, margoak egiten hasteko bidea, hain zuzen. Gure antzerkirako dekoratua egiteko, hainbat aukera proposatzen ditugu. Horietako batzuk plastikako jarduera solte moduan egin daitezke eta besteren bat antzerkiaren dekoratuan jartzeko.

#### Labar-artea. Grabatua

Grabatua egiteko kartoi mehea hainbat koloretako argizariz margotu erabat; ondoren, argizari beltzarekin guztia estali; eta azkenik, puntzoi edo ziri batekin arrakalatu, nahi den irudia osatu.

#### Labar-artea. Eskuaren aztarna. Positiboa eta negatiboa

Lehen gizakiek haitzuloetan, esku-markak uzteko ohitura ere bazuten, eta bi eratan egiten zuten. Guk ere, bi era horiek imitatuta, honelako zerbait egin dezakegu:

*Positiboa.* Eskuak tenperan busti eta kartoi mehe batean (bakoitzak berea, talde txikian edota espazio handian gela guztikoa), edo antzerkirako alaitzea nahi baduzue, haitzuloaren horma egiteko erabiliko duzuen euskarrian, gure aztarnak utziko ditugu.

*Negatiboa.* Eskua kartoi mehearen (edo beste euskarrian) gainean ipini eta gainetik margotu, edota esprai moduan margoa bota eskuaren irudi negatiboa sortuz. (Eskuak zikintzerik nahi ez baduzue, plastikozko eskularruak erabil ditzakezue, baina agian, haurrek gustura zikinduko dituzte eskuak).

Positiboaz eta negatiboaz hausnarketa txiki bat egin. Positiboan pinturarekin barneko aldeak adierazten du forma, barrua bete egiten dugu, eta negatiboan berriz, kanpoko aldeak adierazten du forma, hustu egin dugu.

### Labar-arte. Harpeetako irudiak imitatuz

Harpeetako irudiak imitatuz (plastikako lan solte moduan edota gure antzezpeneko dekoratua osatzeko) saia gaitzke "Ehiza-eszena" bat irudikatzen. Horretarako, giza gorputza modu eskematikoan adierazteko zotz lauak erabiliko ditugu. Has gaitzke giza gorputza mugimendurik gabe, estetikoki adierazten. Soin-enborra irudikatzeke zotz oso bat erabili, eta bina zotz erdi hankak eta besoak irudikatzeke eta mugimenduak adierazteke. Artikulazioen behaketa bideratuko dugu (bi zotz erdirekin adierazten duguna). Buruak puntu baten bidez adieraz ditzakegu.

Mugimendua lantzeko, ikasle batzuk "eredu" moduan jar daitezke, bai banaka eta baita multzoan ere. Eredu batzuei guztion artean behatu eta irakasleak arbelean lerro nagusiak bota ditzake hurrekin negoziatuz. Ondoren, ereduari behatuz, zotzen bidez irudika dezatela eszena.

Zotzak erabili ordez kartoi mehezko zerrenda beltzak erabil ditzakezue hondo argian, edo beste koloretakoak ere bai hondo beltzean. Zerrenden neurriaren arabera, lan hori formatu handian ere egin daiteke.

<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>
--

18. jarduera	<b>LETRA ZOPA: GURE INGURUKO HAITZULOAK</b>
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
	<b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b> <b>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</b>
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
	1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisian eta erreferentzietatik erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka
MATERIALA	Lan-koadernoak, 21. orrialdea
<b>AZALPENA</b>	

- Letra-zopa horretan gure inguruko hainbat haitzulo ezagunen izenak aurkitu beharko dituzte ikasleak.
- Ezertan hasi aurretik, haurrei binaka jartzeko eta orrialdeari behatzeko eskatuko diegu.
- Ondoren talde handian elkarrizketatxoak bultzatuko dugu:
  - Zer egin beharko dugu hemen?
  - Zeren izenak bilatu beharko ditugu letra-zopan?
  - Begiratu ondo-ondo gezietan dauden izenei? Ezagutzen al ditugu?
- Irakasleak goiko agindua irakurriko du zeregina argitzeko, eta, ondoren, banan-banan guztion artean haitzuloen izenak irakurriko ditugu.
- Aurreko unitatean bezala, zutabeak eta lerroak zer diren argituko dugu eta hitzak bilatzeko estrategiak partekatuko ditugu.
- Ikasleak binaka jarriko ditugu, baina norberak bere fitxa izango du. Horrela, elkarri lagunduz izenak aurkituko dituzte.
- Letra-zopa gehiago nahi badituzue, CD-ROMeko satora joan, baina jolas hori aktibatzeke, gogoratu lehenago hainbat jarduera egin beharko dituzuela.

<b>HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...</b>
--

19. jarduera	<b>BERRIA: EKAINGO HAITZULOAREN ERREPLIKA IKUSGAI</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p><b>1.1 Ahozko azalpen simple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta intereseekin zuzenean lotutako gaietarako buruzkoak).</b></p> <p><b>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</b></p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.1.1 Azalpena arretaz entzuten du.</p> <p>1.1.4 Entzundako testu baten oinarritzko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenean erantzunez.</p> <p>1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarritzko ezaugarriak hautemanaz.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak, 36. orrialdea	
<b>AZALPENA</b>		

- Gure irtenaldia girotzeko, irakasleak Irakurgaiak liburuan aurkituko duen berria irakurriko dio taldeari. Haurrei esan berri bat irakurriko diezuela eta erakutsi orrialdea.
  - *Ba al dakizue zer den berria? Zertarako dira berriak?*
- Beharazi goian titularra dagoela, gero argazkia bere argazki-oinarekin eta azkenik berriaren mamia.
  - *Non aurki ditzakegu horrelakoak? Telebistan ere berriak ematen al dituzte? Adibidez...*
- Esan orain berriaren titularra irakurriko diezuela.
  - *Inork ba la daki non dagoen EKAIN? Agian berria irakurtzen badugu jakingo dugu!*
  - *Zer ote da erreplika? (argitu)*
  - *Zergatik egiten ote dituzte erreplikak? (gure ondarearen kontserbazioaren garrantzia azpimarratu eta gogoratu irtenaldia egiten dugunean nola jokatu behar dugun)*
- Irakurri orain berria (titulua berriz, azpititulua eta berria bera azkenik)
  - *Lortu al dugu jakitea non dagoen Ekain? Bai, izen arraro asko zegoen baina, berriz irakurriko dizuet, ea lortzen dugun hori jakitea.*
  - *Agian, Zestoako Ekainberrira joan gaitetzke, Ekaingo kobazuloaren erreplika ikustera!*

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**



20. jarduera	<b>ABESTIA: OI, LUR, AGUR</b>
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
<p><b>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren <i>ahozko mezu sinpleetan</i>, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion <i>informazio zehatzak identifikatzea</i>.</b></p> <p><b>1.13 <i>Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea</i>, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</b></p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako aprendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegi erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikiagoan
MATERIALA	Abestien CDan 15. pista eta, nahi izanez gero, proiektagailua eta ordenagailua testua proiektatzeko.
<b>AZALPENA</b>	

Irakasleak haurrei, abestia aurkeztuko die adi-adi entzuteko eskatuz. Abesti horretan Euskal Herriko lau haizuloetako izenak aipatzen dira eta laster kobazulo batera joan behar dugunez, pentsatzen hasteko ideiak hartzen hasiko gara. Ea denon artean izen horiek aurkitzen ditugun!

- Jarri abestia behin, ikasleek entzun eta abestiaz goza dezaten.
- Ikasleei esan lehen gizakiaren garaiko animaliak, kobazuloak eta gizakiek egunean zehar egiten zituzten ekintzei buruzko informazioa entzungo dugula.
- Zatitu gela hiru taldetan eta ikasle talde bakoitzari abestia adi entzuteko helburu bat jarri. Hau da, talde batek animalien izenak, beste batek kobazuloen izenak eta azkenekoak lehen gizakiak egiten zituen ekintzak entzun eta gogoratzen saiatu beharko du.
- Bi aldiz entzun ondoren, irakasleak hiru zutabetan ikasleek jasotako informazioa idatziko du arbelean.
- Nahi edo ahal izanez gero, testua proiektatu dezakezue eta entzundako hitzak testuan aurkitzera jolastu.
- Bukatzeko, talde-elkarrizketa garatuko dugu abestiak dioena guztion artean berreraikitzeke (ideia nagusiak)

### OI, LUR, AGUR

Oi, lur; oi, lur; agur, agur!

**Otsozelaian** elur-melur.

Oi, lur; oi, lur; agur, agur!

**Sarako** koban hotzari eman egur.

Elur-melur, eman egur,

elur-melur, eman egur.

Antzinako euskaldunak

**ehizan egiten** zuen,

haizuloak utzi eta

**arrantzara joaten** zen.

Neguko hotz giroan

**kobazuloan gordetzen** zen.

Ehiza eta magia

**margotuz** elkartzen zituen.

Otsozelaian ditugu

artelan apainenak,

**Altxerrin** eta **Ekainen**

bisonte margolan onenak.

**HAUSNARKETA.** Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

21. jarduera	<b>IRTENALDIA: GURASOEI GUTUNA</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b> <b>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak... 1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Liburua, 13. orrialdea	
<b>AZALPENA</b>		

Daukagun informazio guztiarekin, haurrentzat irtenaldi bat egitea oso motibagarria suerta daiteke. Gure proposamena haitzuloren bat ikustera irtetea da, baina arazoren bat edukiz gero, etnografia-museoren bisita dezakegu.

Euskal Herrian eta inguruan badaukagu gizakien aztarnak dituzten haitzuloak bisitatzeko aukera, baina aztarnak izan gabe ere, badaude bisitatzeko oso interesgarriak diren haitzuloak.

Aztarnak ikusteko aukera dutenak	Aztarnarik gabekoak
Ekaingo erreplika, Zestoa (Gipuzkoa)	Pozalagua, Karrantza (Bizkaia)
Santimamiñe, Kortezubi (Bizkaia)	Sorgin leze, Zugarramurdi (Nafarroa)
Izturitze eta Otsozelaia, Donamartiri (Nafarroa Behera)	Ikaburu, Urdazubi (Nafarroa)
Altamirako erreplika, Santillana (Kantabria)	Sarako lezea, Sara (Lapurdi)

Taldean, nora joango garen "erabakiko" dugu. Beharbada irakasleak egindako plana zertxobait molda daiteke haurrek planteatzen dizkiguten interesen arabera. Nolanahi ere, ikasleen ideiak zuek dagoeneko antolatu edo pentsatu duzuen horretara bideratzea erraza egingo zaizuelakoan gaude.

- Talde handian kobazulo guztien izenak irakurriko ditugu. Irakasleak kobazuloen izenak arbelean idatziko ditu bi multzotan. Zutabe batean aztarnak ikusteko aukera dituztenak eta beste batean aztarnak ikusteko aukera ez dutenak. Ikasleek liburuan gorri inguratuko dituzte zutabe batekoak eta urdinez beste zutabeak. Horretarako, arbelean dauden izenak irakurriko dituzte edo arrastoei behatuko diete.
- Irakasleak bi multzo horiek zergatik egin dituen galdetuko die ikasleei. Hipotesi asko egin ondoren, erantzuna asmatuko dutelakoan gaude. Orduan, zein kobazulotara joango garen erabakitzeke bozketa antolatuko dugu:
  - *Nora joango gara, aztarnak dituen kobazuloa ikustera edo aztarnarik ez duena ikustera?*
Esan beharrik ez dago bozketa "bideratzea" irakaslearen esku dagoela. Beraz, alde aurretik aztarnak ez dituen kobazulo batera joatea erabaki baduzue, kobazulo horren aldeko kanpaina egin beharko duzue, erakargarriak suerta daitezkeen elementuak goraiatuz.
- Boto gehien dituen aukerarekin aurrera egingo dugu. Multzo horretatik kobazulo bat aukeratzeko azkeneko botaketa egingo dugu. Kobazuloren bat zerrendatik ezabatu behar badugu, ikasleei jakinaraziko diegu zergatik: oso urruti dagoelako, itxita dagoelako, nortasun agiria behar delako...
- Guztion artean erabaki ondoren, bisitatuko dugun kobazuloaren izena liburuan idatziko dute:

.....RA GOAZ!
- Erabakiak hartu ondoren, etxekoak jakinaren gainean jartzeko, eta gauzak prestatzeko oharra ahoz planifikatuko dugu. Talde handian testua prestatu (idazketa kolektiboa arbelean) eta bakoitzak bere orrian, txukun-txukun kopiauko du etxekoek ondo uler dezaten. Ondoren, oharra moztu eta etxera eramango dute.
- Irtenaldia prestatzeko garaian, zeharkako beste zenbait jarduera planteatu ditzakezue: eguna eta bestelako gauzak erabakitzeke, Internet bidez lor dezakezue informazioa, ikasleekin egin dezakezue gelan, ordenagailua eta arbel digitala erabiliz; nola joango garen erabaki: trenez, autobusez...; mapan, nondik nora joango garen ikusi: zein herritatik pasatuko garen...
- Irtenaldia egin ondoren, nahi izanez gero, prestatzerakoan lortutako datuekin, bertan egindako argazkiekin eta haur bakoitzaren marrazkiak gehituz, lehen gizakiaren txokorako horma-irudi bat egin dezakegu. Horma-irudi horretan marrazkiez gain, hainbat eratako datuak txerta ditzakezue. Hartzen duzuen erabakiaren arabera, haurrak taldeka jar ditzakezue lanean, talde bakoitzari zeregin bat izendatuz:
  - Haitzuloa Euskal Herriko mapa batean kokatu, kokatzen den herriari buruzko datuak ipini.
  - Haitzuloari buruzko datuak: noiz aurkitu zen, zeinek aurkitu zuen, zer aurkitu duten indusketetan...
  - Haitzuloaren bisitaldian lortutako argazkiak bere oinekin txertatu ditzakegu.
  - Haitzuloari buruz haur bakoitzak duen iritzia idatzi...

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

22. jarduera	<b>IRTENALDIA: NONDIK NORA AGINDUAK JARRAITUZ</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p><b>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.</b></p> <p><b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b></p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.2.2 Identifikatutako datuak, bakarkako nahiz taldekako aprendizai-egoeretan hainbat zeregin egiteko (galdetegiei erantzun, taula sinpleak osatu...) erabiltzen ditu.</p> <p>1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka edo binaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 22. orrialdea eta txanela.net edo liburu digitala (ikus azalpena)	
<b>AZALPENA</b>		

Fitxan agertzen den krokisaren azpian agindu batzuk agertzen dira. Agindu horiek irakurriz krokisean haitzulora iristeko ibilbidea markatuko dugu puntuak marra baten bidez lotuz.

- Irakasleak argibideak irakurri eta argituko ditu.
- Beharra duten ikasleekin hitz gakoak biribilduko ditugu. Horrela, hitz bat soilik irakurri beharko dute ibilbidea zehazteko.
- Banaka edo binaka jar ditzakezue ikasleak eta ariketa beren kabuz egiten utzi.
- Ibilbidea irtenaldiaren egunean egingo duzuen ibilbidera egokitu nahi baduzue, lan-koadernoko fitxa zuen egoerara egokitzeke Txanela.neten prestatuta duzue (5. unitatea, 13. jarduera), baita liburu digitalean ere. Fitxa horretan, argibideak, tokien irudiak eta toki batetik bestera joateko aginduak zuen beharretara egokitu ahal izango dituzue.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

23. jarduera	<b>ESTALAGMITAK EGITEN</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
3.4.8 Materialak manipulatzuz eta aztertuz gozaten du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Marmeladaren beirazko bi ontzi txiki (biak berdinak), plater txiki bat, artilezko hari lodi bat eta arropa-garbigailuarentzako detergentea/xaboia (Karbonato sodikoa)	
<b>AZALPENA</b>		

Haitzuloren batera joan bazarete, ziur asko estalagmitak eta estalaktitak ikusiko zenituzten. Orain proposatu behar dizuegun esperimientua erraza eta sinplea da; gelan estalagmita baten modeloa osa dezakegu. Zer egin behar duzuen?

Hasteko, esperimientua bideratzeko **materiala**:

- Marmeladaren beirazko bi ontzi txiki (biak berdinak)
- Plater txiki bat
- Artilezko hari lodi bat
- Arropa-garbigailuarentzako detergentea/xaboia (Karbonato sodikoa)

Esperimientua **nola** egin?

1. Bete itzazu beirazko bi ontziak ur beroarekin. Pixkanaka-pixkanaka, joan botatzen bertara ahal duzuen detergente/xaboi guztia (onartzen duena). Jar itzazu lerrokatuta elkarren ondoan ontzi bat, plater txikia eta beste ontzia.
2. Har ezazu artilezko haria eta era honetan jarri: mutur bat ontzi batean sartu, beste muturra beste ontzian eta erdiko partea plater txikiaren gainean zintzilikatuta utzi.
3. Jar ezazu detergente gehiago plater txikian eta utzi ontziak horrela egun batzuetan. Pixkanaka, ura eta xaboia artilezko haritik zehar platertxoan dagoen detergentearen gainera erortzen hasiko dira, eta zutabe bat osatzen ikusiko duzue.

Ea ondo ateratzen zaizuen!

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

24. jarduera	<b>ZER TRESNA ERABILTZEN ZITUZTEN?</b> (Ikusi <i>Txoko zuria</i> dokumentua)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)	<p><b>1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i>, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</b></p> <p><b>2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.</b></p> <p><b>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</b></p> <p><b>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b></p> <p><b>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</b></p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>2.5.6 Denboran zehar gizakiak bere bizimoduan izan dituen bizi-baldintzen aldaketaz jabetzen da eta horiek egungo bizimoduari ekarri dizkioten onurak balioesten ditu.</p> <p>2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.</p> <p>3.4.8 Materialak manipulaturik eta aztertuz gozatzen du.</p> <p>4.1.8 Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, talde txikian eta banaka	
MATERIALA	Liburuko 15. orrialdea, bideoa, lehen gizakiaren txokoko informazioa eta tresnak egiteko beharrezkoa den materiala: kartoia, harriaren forma marrazteko txantiloia, zilar koloreko pintura edota tenpera grisa edo zilar koloreko papera, adar bat (egur zati bat) eta soka	

### AZALPENA


- Liburua ireki orduko, galdera irakurri. Orrialde horretan plazaratzen zaigun galderaren erantzuna irudiak ikustearekin errazten bada ere, informazio-iturrien erabilera bultzatuko dugu. Beraz, liburuko orria behatu/irakurri ondoren, lehen gizakien txokoko liburuei begiratuko diegu tresnen irudi gehiago ikusteko.
- Bilaketa horren helburua garbi adieraziko diegu hurrei: lehen gizakiek zer nolako tresnak erabiltzen zituzten jakin nahi dugu. Asmo berarekin, bideoan, tresnen atala ikusiko dugu eta txoko zurian eta bideoan jasotako informazioa partekatuko dugu.
- Tresnen erabilerak garai hartako bizi-baldintzei ekarri zien onuraz mintzatuko gara.
- Orain, gure antzerkirako tresnak egin/loritu behar ditugunez, horiek eskuratzeko modua pentsatu beharko dugu. Irakasleak eginak eramango ditu gelara aizkora bat, gezi bat, lantza bat eta labana bat. Era honetan erraz egin dezakezue:

#### Materiala

Kartoia, harriaren forma marrazteko txantiloia, zilar koloreko pintura edota tenpera grisa edo zilar koloreko papera, adar bat (egur zati bat) eta soka.

#### Nola egin

Lehenengo, kartoian aizkoraren/geziaren/lantzaren... burdinaren/harriaren forma marraztuko dugu (bi aldeak pieza batean egingo ditugu. Ondoren, kanpoko aldea izango dena margotuko dugu (grisez). Lehortzen denean, erditik tolestu eta adarraren (makilaren, egurraren) puntaren inguruan bilduko dugu, kola emango diegu eta itsatsi egingo ditugu bi aldeak (grapatu ere egin daiteke). Bukatzeko, sokaz lotuko dugu. Eta ahaztu gabe, erabilitako materialak denon artean (arduradunak izenda ditzakezue) jasoko ditugu.



- Irakasleak ikasleei tresnak erakutsiko dizkie eta nola egin dituen azalduko die.
- Talde bakoitzak zer tresna egin erabaki, eta tresnaren izena liburuan idatziko du.
- Ikasleen artean banatuko ditugu ardurak. Zerbait behar duten bakoitzean ikasle horiengana jo beharko dute, zer behar duten azalduz. Saioa bukatzen denean, materialaren arduradunek erabilitako gauzak bere tokian daudela ziurtatuko dute.
- Ikasleek aukeratutako tresna egingo dute.
- Bukatzeko, tresnak egiteko emandako urratsak liburuan idatziko dituzte, banaka edota binaka, aurreko idazketa-jardueran egin duzenaren arabera aldatzea komeni baita.

Horrela eginez gero, hau da, lehenengo tresnak egin eta ondoren prozesua idatziz jaso, ikasleek aski ezaguna izango dute idatzi beharrekoa eta informazio hori kodetzea izango da ikasleen lan bakarra. Beraz, arreta berezia jarri ahal izango dute kodean.

- Prozesua hiru edo lau zatitan banatu (hiru badira "ondoren" edota "horren ostean" lerroak libre utzi), ahoz planifikatu idatzi beharrekoa (beharrezkoa bada erreferentziekin lotuz idatzi behar duten hori) eta azkenik, banaka (edota binaka aurreko idazketa-jardueran egin duzenaren arabera aldatzea komeni baita) liburuan idatziko dute.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

25. jarduera	<b>BIDEOA: AZTARNATEGIAK</b>
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko <i>informazio aurkitzea eta aukeratzea</i> , eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.	
1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i> , modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.	
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.7.1 Erantzun zehatzeko galderei erantzuteko informazioa aurkitzen du eskainitako testuetan.	
1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia-fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.	
4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.	
4.1.7 Lan-eritmo egokia izaten laguntzen du, eta saiatzten da iraunkortasunez eritmoari eusten.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian
MATERIALA	Bideoa, gidaren atzeko aldean dauden irudiak, lan-koadernoko 23. orrialdea
<b>AZALPENA</b>	

- Esan ikasleei lehen gizakien aztarnak aurkitzeko zer prozesu jarraitzen den azaltzen duen bideoa ikusiko dugula.
- Ikasleak talde txikian jarri (3 edo 4 lagun) eta gidaren bukaeran prozesuari buruz aurkituko dituzun irudiak eta irudi horiek ordenatzeko kartoi mehe bat eman talde bakoitzari. Bideo gelara joan aurretik, irudiak goitik behera ordenatzeko eskatuko diegu.
- Hasi bideoa ikusten eta gelditu ezazu, zure ustez, azpimarratzeko moduko tartea azaltzen direnean. Hala ere, gogoratu helburua ez dela prozesua zehatz-mehatz ikastea.
- Ikusitakoaren arabera irudiak berriz ere ordenatzeko eskatuko diegu ikasleei. Blu-tack erabiliko dugu argazkiak kartoi mehearen gainean itsasteko. Horrela, eztabaidaren ondorioz irudien ordena erraz aldatu ahal izango dute.
- Talde guztien lanak arbelean jarriko ditugu. Haurrek taldean erabakitakoa denen aurrean agertuko dute. Prozesu baten adierazpena denez, gogoratu denbora-antolatzaileen erabilera bultzatzea beharrezkoa dela. Erantzunen zergatiak adierazterakoan, eztabaida bultzatuko dugu.
- Irudien ordena egokia duen kartoi mehe baten kopiak egin ditzakegu, ikasle bakoitzak bere kopia izan dezan. Ondoren, lehen gizakiaren txokoa jar dezakegu. Bestalde, lan-koadernoan duzue prozesua banaka eta era librean idatzeko fitxa bat.


Lan-koadernoko fitxa horretan eskatzen den testu osoa lehen mailako ikasleentzat lan neketsua izan daitekeenez, *lan kooperatiborako puzzlea* teknika aplikatzea proposatzen dizuegu. Teknika hori aplikatu ahal izango duzue, baldin eta ikasle gehienek alfabetikoki idazten badute. Bestela, itxarotea gomendatzen dizuegu.

Jarduera honen bidez, elkartasunez lan egiteko dauden tekniketako bat aurkeztu, eta martxan jartzea proposatzen dizuegu. Garrantzitsua deritzogu, lana ondo burutzeko, pauso guztiak adierazi bezala jarraitzeari.

1. Ikasleak launaka jarriko ditugu, prozesua lau urratsetan banatuta dagoelako. Jatorrizko taldeak izango dira.
2. Talde bakoitzeko kideei zenbaki bat emango diegu, batetik laura.
3. Ikasleak A, B, C eta D talde berrietan jarriko ditugu, ikasle bakoitzak duen zenbakiaren arabera. Hau da, 1 zenbakia duten guztiak elkarrekin A taldean, 2 zenbakia duten guztiak elkarrekin B taldean, 3 zenbakia duten guztiak elkarrekin C taldean eta 4 zenbakia duten guztiak elkarrekin D taldean.
4. Talde bakoitzaren eginbeharra prozesuaren urrats bat liburuan idaztea izango da. A taldeak lehenengo urratsa, B taldeak bigarrena, C taldeak hirugarrena eta D taldeak laugarrena.
5. A, B, C eta D taldeetako kide guztiak egokitu zaien prozesuaren urratsa koadernoan idatzita dutenean, beren jatorrizko taldeetara itzuliko dira. Horrela, testu osoaren zatiak idatzita dituzten lagunak elkartuko dira jatorrizko taldeetan.
6. Kide bakoitzak besteei, beren testua diktatu egingo die eta besteek testua idatziko duten beren lan-koadernoetan.

Teknika horren bidez lan eginez, denon parte hartzea ziurtatzeaz gain, prozesuaren mementoren batean denon ideiak azalduko dira eta hori garrantzitsua da norbanakoentzat. Horrez gain, entzuketara aktiboa eta adierazpeneko gaitasunak landuko dituzte ikasleek: besteen iritzia entzun eta ulertu, norberarenak azaldu, aurreko taldean adostutakoa hurrengo taldeari adierazi, etab.

Jarduerarekin hasi aurretik, komeniko litzateke, talde handian hitz egitea hor goian esandako guztiaz, eta baita, jarraituko duzuen prozedura zein izango argitzea ere. Hona hemen, taldekatzeen adibide grafikoa:



**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

26. jarduera	<b>HITZ JOKOAK</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b> <b>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</b>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak, 37. orrialdea	
<b>AZALPENA</b>		

Ehizaren inguruko Txilikuren hitz-joko polita irakurriko dugu.

- Eman denbora ikasleei binaka orrialdeari behatzeko eta, ahal duten neurrian, irakurtzeko. Marrazkien behaketaren bitartez testuaren inguruko hipotesiak egingo ditugu. Zer jarriko ote du?
- Irakasleak lehenengo hitz-jokoaren lehenengo lerroa irakurriko du. Saiatu erritmo jakin bat markatzen eskuarekin edo hankarekin kolpetxoak joz, oso lagungarria eta jostagarria baita.
- Ikasleek, liburua aurrean dutela, hitzak errepikatuko dituzte erritmo eta doinu berean.
- Irakasleak hurrengo lerroa irakurri, eta ikasleek berriro errepikatuko dute.
- Testu bakoitzean dauden onomatopeiak zeri dagozkien galdetuko diegu haurrei, eta soinua imitatzen saiatuko gara.
- Prozedura bera jarraituko dugu beste hitz-jokoekin.
- Bukatzeko, irakasleak testu guztiak irakurriko ditu eta ikasleek entzungo dituzte. Bozketa bidez, gehien gustatu zaiena aukeratu eta irakurriko dugu denok elkarrekin.
- Kodearen lanketaren aldetik, azkeneko hitz-jokoa errimaren behaketa egiteko eta berdin bukatzen diren hitzak asmatzeko egokia da.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**



27. jarduera	<b>BIRRAITONAREN MUSEOA CD-ROMa</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Birraitonaren museoa CD-ROMa, ordenagailua eta proiektagailua	
<b>AZALPENA</b>		

Lehen gizakiei buruz gehiago ikasteko, CD-ROMera joko dugu. Hainbat kontzepturekin loturiko esaldiak osatuko dituzte ikasleek. Aitonaren tailerrean, hitzak ordenatzeko jarduera aukeratu eta ekin lanari.

- Gelako ordenagailua eta proiektagailua martxan jarri eta talde osoarekin hitzak ordenatuko ditugu.
- Lehenengo aitona dioena entzun eta talde osoak errepikatuko du.
- Ondoren, esaldiak dituen hitz kopuruaren arabera haur talde bat altxatuko da. Adibidez, esaldiak bost hitz baditu, bost ikasle altxatuko dira.
- Ikasle horiek banan-banan, hitzaren gainean klikatu eta bere tokira eramango dute. Bitartean, talde osoarekin, ariketa aurrera eramateko estrategiak partekatuko ditugu. Adibidez, arrastoen (indizio) bidezko hitzen aukeraketa edo azkeneko hitza zein den jakiteko, puntua non dagoen begiratzea.
- Esaldiaren esanahiari buruzko hausnarketaxoa egingo dugu talde handiarekin, hurrengo esaldiari ekin aurretik.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

28. jarduera	<b>SILABAK ELKARTUZ HITZAK OSATZEN</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka/Binaka	
MATERIALA	Lan-koadernoko 24. orrialdea eta Birraitonaren CD-ROMa	
<b>AZALPENA</b>		

Lehen gizakiak erabiltzen zituen ehizarako eta apaintzeko tresnen izenak osatzeko ariketa da hau.

- Behar izanez gero, lehenbizi guztion artean egin ezazue jarduera arbelean, eta kodea menderatzen ez dutenekin, ahal dela, beraien inguruan jarri eta estrategiak partekatu. Beraz, lan-koadernora jo aurretik, arbelean hainbat hitz idatzi eta txalotuz silabetan zatikatu (baita marra baten bidez ere arbelean). Ondoren, alderantzizko prozesua pixka bat landu, hau da, hitz horien silabak desordenan eman, eta, ordenatuz, hitza osatu.
- Azkenik, lan-koadernoko ariketa egin. Kodea menderatzen duten ikasleei banaka lana egiten utziko diegu. Kodea menderatzen ez duten ikasleekin irakasleak tresnaren izena esango du. Ikasleek, hitza txalokatuz errepikatuko dute. Haurren banakako lana izango da izena osatzeko silabak ordenan kopiatzea. Azkenik, hitza irakurri egingo dugu talde handian. Prozedura berari jarraituko diogu hitz guztiekin.
- Kodeaz hausnartzeko hain egokia den era honetako ariketa gehiago *Birraitonaren Museoa I* CD-ROMean aurkituko dituzue, aitona txokoa, hain zuzen ere.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

29. jarduera	<b>ZER JATEN ZUTEN?</b>
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
<p><b>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</b></p> <p><b>2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.</b></p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
<p>2.5.6 Denboran zehar gizakiak bere bizimoduan izan dituen bizi-baldintzen aldaketaz jabetzen da eta horiek egungo bizimoduari ekarri dizkioten onurak balioesten ditu.</p> <p>4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.</p>	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian, talde txikian eta banaka
MATERIALA	Liburuko 16-17 orrialdeak, arbel zuriak eta errotulagailuak, supermerkatutako publizitate-txostenak eta antzerkirako janaria egiteko plastilina
<b>AZALPENA</b>	

Bideoa ikusi badugu, ehiza kontua eta fruitu-biltzaile kontuak ere entzungo zituzten ikasleek. Oraingoan, janarien sailkapen bat egingo dugu, hau da, bildutako janariak ehizatutakoak edo bildutakoak izan ziren bereizi egingo dugu. Gaur egun, ehizatza eta janaria biltzaera joaten ez garenez, hausnartu beharko dugu gure supermerkatu eta azoketan dauden produktuak animalia jatorrikoak diren, edota landare jatorrikoak diren. Azken batean, bildutakoak landare jatorrikoak baitira nagusiki, eta animalia jatorrikoak ehizatutakoak.


- Liburua ireki orria behatu/irakurri ondoren galdera irakurri. Galderaren erantzuna irudia behatzearekin errazten bada ere, liburuko marrazkiak talde handian aztertuko ditugu.
- Ikasleak launaka jarriko dira. Adibidez, 25 ikasle badituzue, hiru taldek liburuko irudian ikusten diren eta beraiei bururatzen zaizkien animalia jatorriko elikagaiak idatziko dituzte arbel zurian (talde bakoitzeko arbel bat), eta beste hiru taldek liburuko irudian ikusten diren edota beraiei bururatzen zaizkien landare jatorrikoak. Azalaren inguruko elkarrizketan egin genuen bezala, talde bakoitzeko idazkaria, irakurleak edo esatariak, moderatzailea eta denbora kontrolatzailea izenda ditzakegu (Ikusi lehenengo jardueraren azalpena).
- Arbelean bi multzo egingo ditugu eta talde bakoitzari bururatu zaizkien elikagaiak idatziko ditugu dagokien tokian.
- Berriz ere liburura joko dugu eta laukien azpian dauden hitzak irakurriko ditugu. Ikasleei supermerkatutako txostenak hartu eta elikagaiak moztu eta sailkatuko ditugula azalduko diegu.
- Supermerkatuetako publizitate-txostenak eskuratuko ditugu eta jakien atalean landare jatorrikoak eta animalia jatorrikoak bereizi ondoren, moztu eta bakoitza dagokion tokian itsatsiz collage bat egingo dute bakarka.
- Bukatzeko, proiektuari begira jarriko gara eta bonbilla-txartelean dagoen mezua irakurriko dugu. Antzezlanerako, janaria prestatu dezakegu plastilinarekin (adibidez, oilasko baten hanka, arrautzak, arrainak, tomateak...), edota etxetik ekar dezakete (talarik ezean, egokiak izan daitezke fruitu lehor batzuk, gero, antzerkia bukatu ondoren guztion artean banatu eta jateko).

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

30. jarduera	<b>BUZTINEZKO ONTZIA: GOPORRA</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b> <b>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
3.4.8 Materialak manipulatzu eta aztertuz gozaten du. 4.1.8 Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Banaka	
MATERIALA	Buztina eta dekorazio gisa marraz egiteko puntzioak	
<b>AZALPENA</b>		

Gure antzerkian erabili eta ondoren etxera eramateko, buztinezko ontziak egingo ditugu. Hemen dugun proposamena, ontziak egiteko lehen pauso edo era sinplea da. Aurrerago beste teknika batzuk proposatuko ditugu.

1. Buztinezko pilota handi baten neurriko bola bat egin.
2. Ukabilarekin bola horretan zulo bat egiten joan. Nahiko zuloa eginda daukagunean, hasi goporraren pareta mehetzen eta bere lodiera berdintzen hatzak erabiliz eta presioa eginez.
3. Forma, pieza, nahiko landuta daukagunean, kanpoko aldea apaindu ebakidurak eginez. Dekoratzeko lerroak (zuzenak, kurbatuak) eta puntuak erabili, grekak eginaz.



**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

31. jarduera	<b>IPUINA: NOLA ASMATU ZIREN TALOAK? (Ikusi Ipuina lantzeko oharra dokumentua)</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>1.1 Ahozko azalpen sinple eta kontestualizatuen esanahi orokorra identifikatzea (ezagutzekin, bizipenekin eta interesekin zuzenean lotutako gai buruzkoak).</b> <b>1.3 Hezkuntza-testuinguruan gertatzen diren ohiko egoeretan elkarrizketan aritzea, sentimenduak, esperientziak, ideiak eta ezagutzak azalduz.</b> <b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarriko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b> <b>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoaren garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.1.4 Entzundako testu baten oinarriko ideia batzuk gogoratzen ditu eta ahoz adierazten ditu haiei buruzko galdera zuzenei erantzunez. 1.3.1 Berez parte hartzen du, gaiari buruzko ekarpenak (ikus puntuak, ideiak, sentimenduak, ezagutzak) egiteko. 1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisian eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.13.1 Literaturaz gozatzeko helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak liburu 38-41 orrialdeak, ipuinaren bertsi luzea (ikus gidaren bukaeran)	

## AZALPENA

Mitxel Muruak idatzitako ipuina irakasleak ikasleei irakurriko die. Ipuina lau zatitan banatu dugu eta, zati bakoitzarekin lotuta, ikasleei hainbat galdera egitea proposatzen dizuegu, ikasleek gertatuko denaren inguruko hipotesiak egin ditzaten. Galdera horiek, jakina, irakasleak ikasleen interesaren eta erantzunen arabera, egokitu, baztertu edo berriak asmatu beharko ditu.

Irakaslea aulki batean eseriko da, gelako liburutegiaren aurrean, eta ikasle guztiak berari begira lurrean eseriko dira. Gogoratu Pitxik laguntza eman dezakeela ipuinak zein liburutegiko edozein liburu aurkezteko eta erabiltzeko orduan. Irakasleak Pitxirekin jolas dezake (bentrilokia edo eginez). Pitxi has daiteke hitz egiten:

- *Kaixo, laguntxo maiteak! Zein pozik nagoen berriz ere liburutegira etorri zaretelako! Azken boladan aspertu samar nembilen eta ipuin bat entzuteko desiratzen nengoan. Ale, irakasle! Zeren zain zaude? Hori da hori talo usain goxoa! Nondik ote dator?...*

### IRAKURTZEN HASI AURRETIK

- Ipuina irakurtzen hasi aurretik, izenburua irakurri eta erreparatuko diogu. Ikasleen hipotesiak entzun ondoren, irakaslea ipuina lasai eta ozenki taldeari irakurtzen hasiko zaio.

- *Ba al dakizue zer den taloa? Inoiz jan al duzue? Non? Zerekin, txorizoarekin, txokolatarekin, bakarrik? Eta egiten, ba al dakizue egiten? Taloa ere, baten batek asmatuko zuen.*

### IRAKURRI BITARTEAN (Ipuinaren bertsio luzea gidaren bukaeran aurkituko duzue)

#### 38. orrialdea

- Lehenengo zatia irakurri ondoren, ikasleek irakurritakoa ulertu ote duten ziurtatuko dugu eta azkenean, gerta daitekeenaren inguruko hipotesiak eskatuko dizkiegu.

- *Hara! On Josepe berriro! Zergatik azaltzen zaigu berriz ere On Josepe? Nola bizi ziren amona Arritxuren garaian? Posible al da gurpila zer den ez jakitea? Nola biziko ginateteke gu gurpilik gabe? Hurrengo orrialdean zer gertatuko dela uste duzue?*

#### 39. orrialdea

- Hurrengo zatia irakurri ondoren berriro zuzenduko gara haurrengana.

- *Zer da ilargi beteak? Posible al da irinarekin ilargiak egitea? Zer asmatu zuen amona Arritxuk? Marrazkiko taloak zeren itxura du?*

#### 40. orrialdea

- *Berak jakin gabe, zer asmatu zuen Amona Arritxuk? Uste al duzue Amona Arritxu asmatzaile ospetsua izan zela?*

#### 41. orrialdea

- Bukatzeko, azken zatia irakurriko dugu eta ipuinean gertatu dena eta haurrek botatuko hipotesiak alderatuko ditugu.

- Ipuinaren ulermena sendotzeko, asimilaziorako, hainbat jarduera proposatzen dira:

Beste egun batean, talde handiko irakurketa egingo dugu. Ikasle bakoitzak liburua aurrean duela, ilustrazioari behatzeko denbora-tarte bat emango diegu. Gero, testuaren gaineko hipotesiak egiteko eskatuko diegu eta irakurketari ekin aurretik horietako batzuk entzungo ditugu. Ondoren, denok elkarrekin testua irakurriko dugu. Bukatzeko, kodearen gaineko hausnarketa egiteko jolas moduko galderak egingo dizkiegu ikasleei; adibidez:

- *Zenbat aldiz azaltzen da protagonistaren izena? Ba al dago letra berarekin hasten den beste hitzik? Zein da zati honetako hitzik luzeena? Eta motzena?...*

Lanketa hori egin ondoren, ikasleek liburua etxera eramango dute ipuina gurasoei irakurtzeko edo kontatzeko.

### IRAKURRI ONDOREN

Ikusi hurrengo jarduerak.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

32. jarduera	<b>IPUINA AITZAKIA: ELKARTASUN JOLASAK</b> (Ikusi <i>Elkartasun jolasak</i> dokumentua)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p><b>1.4 Eskolako jarduerekin zuzenean lotuta dauden egoeretan (egindako lanen aurkezpena, gertuko gertaeren eta esperientzien kontaketa, bizipenak...) ahozko aurkezpen sinpleak egitea eskainitako jarraibideen laguntzaz.</b></p> <p><b>2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.</b></p> <p><b>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b></p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.4.3 Era ulergarrian eta erraztasun nahikoarekin adierazten ditu ideiak.</p> <p>2.5.1 Gelako kideen arteko harremanetan parte hartzen du.</p> <p>3.4.9 Arte-jardueretan ideiak, esperientziak eta gertaerak inhibiziorik gabe, sormenez eta modu pertsonalean agertzen ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta talde txikian	
MATERIALA	Egunerokotasuneko objektu arruntak: egur puska bat, kutxa bat, boligrafoa	
<b>AZALPENA</b>		

#### IRUDIMENA PIZTEN... BIHUR DEZAKEGU

Ikasleen irudimena pizteko adierazpen dramatikoetako jolas kooperatibo hau egitea proposatzen dizuegu. Amona Arritxuk egindako taloa gurpil bihurtu zen. Guk ere horrelako zerbait egin dezakegu. Hau da, gure irudimenez gauza bat beste bat bihurtu.

- Korro batean denok eseriko gara eta erdian objektu batzuk ipiniko ditugu: egur puska bat, kutxa bat, boligrafoa, etab. Banan-banan objektu hori hartuko dugu eta esango dugu: *Hau egurra da baina ... bihur dezakegu...* Keinuez baliatuta objektu hori beste bat bihurtuko dugu: ogitartekoa, txapela, telefonoa, etab. Korroko beste kideek asmatu egin beharko dute zer bihurtu dugun.
- Jolas honetan ikasleek borondatez parte hartuko dute, hori bai, irakaslea saiatuko da era goxo batean ikasle guztiak estimulatzeko, esperientzia egin eta bizi dezaten.
- Bukatzerakoan, beti bezala, korroan jezarri eta esperientziari buruz hitz egingo dugu: sentimenduez (urduritasuna ateratzeko orduan...), zailtasunak (ideia bi jarraian izan eta ezin atera erdira besteei jolasteko aukera eman behar dietalako, ideia falta eta atera nahi izatea...).
- Gogoratu jolasa behin baino gehiagotan errepikatu dezakezuela beste hainbat material erabiliz.

#### GURPILA

- Irakasleak ikasleei giza gurpila izatea proposatuko die, baina sei edo zazpi lagunek eskutik helduta osatu beharko dute gurpila. Horregatik, azpimarratu egingo die kooperazio mugitu beharko dutela, norberaren mugimendua kontuan izateaz gain, besteenak ere garrantzia duela esanez, eta horretarako lagun guztien koordinazioa ezinbestekoa dela.
- Jolasa hormak libre dituen gela batean egin beharko dugu, hau da, enbarazuz libre dagoen batean. Jolasaren helburua gurpila hormetatik biraka ibiltzea izango da, baina memento oro ikasle bi edo hiruren bizkarrak hormarekin kontaktuan egon beharko du. Dibertsioa handitzeko, gurpila azkar mugitu daiteke edo norabidea aldatu. Posible litzateke, baita ere, gurpila gelditzea eta giza ardatz baten inguruan biltzea. Horretarako, ikasle batek eskua bere lagunarenetik askatu eta biraka hasiko da zirkuluaren erdi ingururantz, ilara guztia bertaratu.
- Jolasa bukatzerakoan biribil batean jezarri eta eztabaida sortuko dugu: esperientzia bera balioetsi, kritikatu, zailtasunak eta horien zergatia argitu, saihezbidea aurkituz... Bukatzean, berriro jolas gaitzke.
- Gogoratu, gai hau landu bitartean behin baino gehiagotan jolastu gaitzkeela jolas kooperatibo horretan.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

33. jarduera	<b>TALOAREN ERREZETA</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<p><b>1.2 Hezkuntza-testuinguruko ohiko jardueretan gertatzen diren ahozko mezu sinpleetan, aurrez finkatutako entzutearen helburuari dagozkion informazio zehatzak identifikatzea.</b></p> <p><b>1.6 Hainbat erabilpen-eremutan ohikoak diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi globala interpretatzea.</b></p>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
<p>1.2.1 Hainbat jarduera egiteko emandako ahozko aginduen edo jarraibideen arabera jokatzeko du. (Irizpide hau ia jarduera guztietan behatzeko aukera dugunez, zenbaitetan bakarrik azalduko da analisisian).</p> <p>1.6.2 Testu genero ohikoenak bereizten ditu, beren oinarritzko ezaugarriak hautemanaz.</p>		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian	
MATERIALA	Irakurgaiak liburuko 42-43 orrialdeak	
<b>AZALPENA</b>		

- Ohiko argibide testua dugu errezeta. Ezaugarrien artean, bi zati nagusi dituela nabarmenduko dugu. Osagaiak dagokiena batetik, eta prozedura bestetik.
- Denboraz justu samar ibili gaitzkeenez, taloa ikastolan egin beharrean, eguraldi txarreko asteburu batean familian elkarlanean gustura pasatzeko aukera eskaini diezaiekegu ikasleei. Horretarako, CD-ROMean, errezeta etxera eraman dezakete ikasleek, haurrek irakurtzeko moduan, maiuskulaz, editatu eta kopia bana eginda.
- Gure aldetik, ikastolan, taloa egiten ariko bagina bezala egingo dugu. Irakasleak osagaiak irakurriko ditu eta mahai gainean jarriko balitu bezala egingo du. Haurrek beste hainbeste egingo dute.
- Ondoren, irakasleak prozedura (lehenik, zenbaki bidez, eta ondoren, denbora-antolatzaileak erabiliz) irakurtzen duen bitartean, keinuak eta mugimenduak egingo ditu ikasleek errepika ditzaten.
- Jakina, jan ere egingo dugu, eta, gainera, oso goxoa egongo da.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

34. jarduera	<b>BERTSOA OSATU</b>
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
<b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b> <b>1.13 Literatura atseginerako iturri modura erabiltzea, baita sentsibilitate estetikoa garatzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) eraikitzeke ere.</b>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du. 1.13.1 Literaturaz gozatzea helburu duten jardueretan (ipuin, olerki, kanta eta abarren entzuketak, irakurketa-txokoa, liburutegia...) interesa agertzen du eta aktiboki parte hartzen du.	
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka edo banaka
MATERIALA	Lan-koadernoak, 25. orrialdea
<b>AZALPENA</b>	

Ipuinarekin jarraituz, Mikel Mendizabalek taloaren bertsoa eskaintzen digu. Lan-koadernoko jardueran oin guztiak kenduta ditugu eta bi poltsatan azaltzen dira. Lehenengo poltsa goiko koplari dagokio eta behekoa bigarrenari. Lehenengo koplak bat eta gero bestea lantzea proposatzen dizuegu. Haurrek, lan-koadernoan osatu behar dutena egiteko zailtasunak izan ditzaketenez, 2. unitatean aplikatu genuen antzeko prozedura erabil dezakegu oraingoan ere:

- Irakasleak bertsozale.com web orrian, bertso doinutegian “Elurra teilatuan” bilatuko du eta hurrei musika bi edo hiru aldiz entzuteko esango die.
- Ondoren, bertsoa osorik, hutsunerik gabe, aurkeztuko die (arbelean edo proiektatuta arbel digitalean).
- Irakasleak bertsoa abestuko du. Gero, berriz abestuko du, oraingoan, ahoskatzen ari den zatia eskuekin seinalatuz. Haurrekin batera, bitan edo hirutan abestuko du (nahi bada, zatikatuz).
- Esanahiari erreparatuko diogu: *Zer dio bertsoak?*
- Orain, orrialdean eskuinaldeko poltsan dauden oinak aztertuko ditugu. (Nahi izanez gero oinak txartel batzuetan idatzita eta itsasteko goma dutela ere erabil ditzakegu, idazten ibili beharrean). Zer dute berdina? Grafia-fonema erlazioan jarriko dugu indarra.
- INA bukaera duten beste hitzak gogoratuko eta idatziko ditugu: ADINA, ERREGINA, BURDINA, ZOTINA, MINA. Behar izanez gero, konparatu FINA eta MINA eta F eta M fonemetan jarri arreta. Ikasleei hitzak bururatzen ez bazaizkie irakasleak lagunduko die definizio errazen bitartez. Adibidez: *Kolpe bat hartzen duzunean, nola esaten zaio gorputzean sentitzen dugunari? MINA.*
- Arbelean orain bertsoari oin bat kenduko diogu eta kanpoan idatziko dugu. Bertsoari bi oin kenduko dizkiogu eta gauza bera egingo dugu. Kontraesanak sortzeko, oina ez dagokion tokian kokatuz zer gertatzen den ikusiko dugu.
- Lan-koadernoan, banaka, binaka, bertsoa osatuko dute (irakasleak ikusiko du arbelean edota proiektzioan bertsoa utzi ala ez).
- Gogoratu CD-ROMean idazketa-tailerra dugula eta bertan, testuak idazteko txantilo politak aurki ditzakegula. Hori baliaituz, bertsoak, abestiak, zein olerkiak, ordenagailuz garbira pasatzeko aukera daukagu, eta bilduma dotorea osa dezakegu.
- Bertsoaren bigarren zatiarekin, lehenengoarekin jarraitu ditugun urratsak errepikatuko ditugu.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

35. jarduera	<b>ELIKAGAIEN HITZ GURUTZATUAK</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>1.5 Hizkuntza idatziaren oinarrizko unitateak (grafia, fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) deskodetzea eta esanahia zehatz eta azkar interpretatzea.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.5.1 Hizkuntza idatziaren unitate sinpleen behaketan, analisisan eta erreferentziekiko erlazioak ezartzean, interesa adierazten du eta aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handia eta banaka	
MATERIALA	Lan-koadernoak, 26. orrialdea	
<b>AZALPENA</b>		

Lehen gizakiek ez ezik guk ere jan, jaten dugu. Hemen ditugu hainbat elikagaien izenak hitz gurutzatuetan jartzeko.

- Irakasleak agindua irakurriko du.
- Lanean hasteko, orrialdean barreiatuta ditugun izenak goiko koadroan dauden "definizioekin" erlazioan jarri beharko ditugu. Beraz, hitzetatik edota definizioetatik has gaitezke.
- Hitzetatik hasiz gero, kodea behatzeaz gain, eta orrialdean dauden irudiekin lotzeaz gain, zerekin lotuko lituzketen galdetu ikasleei: nolabait eurek sortuko dute "definizio" moduko bat; lauko talde bakoitzari hitz bat eman eta pentsa dezatela, adibidez, arrautza, oiloarekin edota tortillarekin lotu daiteke.
- Posible da hainbat hurrek hurrak eta aleak (nahikoa generikoa da) adibidez, bere izenez ez ezagutzea. Kasu horretan irakasleak gelara eramatea ez legoke gaizki.
- Gero, definizioak irakurriko ditugu, hitz gakoak (oilu, erein, hurritza fruitu, uretan, pikondoaren fruitu, behia eta txerria) biribilduz.
- Definizio bakoitzari hitz bat atxikiko diogu, beheko hitzen ondoan dagokion definizioaren zenbakia jarrita. Bukatzeko, hitz bakoitza bere tokian idatziko dute.
- Zuen ikasleek hitzak irakurtzeko autonomia nahikoa badute, definizio bakoitzeko hitz gakoa aukeratu ondoren, utzi beraiei definizioak eta hitzak lotzen. Bukatzeko, ikasleek hitz bakoitza bere tokian idatziko dute.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**



36. jarduera	<b>NOLA JANZTEN ZIREN?</b> (Ikusi <i>Txoko zuria</i> dokumentua)	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
	<p><b>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</b></p> <p><b>2.5 Gizakion zenbait adierazpen kultural hautematea, denboran zehar gizonek eta emakumeek batera egindako ekarpenen ondorio den aniztasun eta aberastasun kulturala balioetsiz.</b></p> <p><b>2.9 Fenomenoen, behaketen edo bizitza natural zein sozialeko elementuen zein gertakarien inguruko informazioa biltzea eta galdera egokiak egitea, bere hurbileko inguruan behaketa sistematikoa eginez eta zenbait tresna eta erregistro argi erabiliz.</b></p> <p><b>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b></p> <p><b>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</b></p>	
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
	<p>1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafia- fonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.</p> <p>2.5.6 Denboran zehar gizakiak bere bizimoduan izan dituen bizi-baldintzen aldaketaz jabetzen da eta horiek egungo bizimoduari ekarri dizkieten onurak balioesten ditu.</p> <p>2.9.3 Informazioa bilatzeko hainbat informazio-iturri eta euskarri (txoko zuriko baliabideak, IKTak...) erabiltzen ditu.</p> <p>3.4.8 Materialak manipulatu eta aztertuz gozaten du.</p> <p>4.1.8 Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.</p>	
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Liburuko 18. orrialdea, plastikozko poltsak edo zakuak eta soka	

### AZALPENA

- Liburua ireki orduko, galdera irakurri. Orrialde honetan plazaratzen zaigun galderaren erantzuna irudiak ikustearekin errazten bada ere, marrazkian azaltzen den prozesua talde handian aztertuko dugu. Prozesuaren adierazpenerako, gogoratu denbora-antolatzaileen erabilera beharrezkoa dela.
  - Ondoren, informazio-iturrien azterketa bultzatuko dugu. Lehen gizakien txokoko liburuei begiratuko diegu jantzien irudi gehiago ikusteko. Bilaketa horren helburua garbi adieraziko diegu hurrei: lehen gizakiak nola jantzen ziren jakin nahi dugu. Txoko zurian lortutako informazioa partekatuko dugu.
  - Jantziak egiteko teknikaren erabilerak gaur egungo bizimoduari ekarri zion onuraz mintzatuko gara.
  - Antzezlanari begira, nola jantziko garen eta jantziak nola eskuratuko ditugun erabaki beharko dugu. Denboraz nola zabiltzaten kontuan hartzeko gauza da, erabakia alde batera edo bestera bideratzeko. Jantzkerak gelan egiteko asmotan bazabiltzate plastikozko poltsak, oihal zaharrak (zaku puskak), sokak etab. baliagarriak izan dakizkizueke.
  - Irakasleak egina eramango du gelara jantzi bat. Honela, erraz egingo dituzue:
 

**Materiala.** Plastikozko poltsa bat eta soka. Poltsak zuriak eta marroiak izan daitezke, ardiaren eta oreinaren larrua bereizteko.

**Nola egin.** Lehenengo, burua eta besoen forma marraztuko dugu. Ondoren, burua eta eskuak sartuta, jantzi egingo dugu poltsa. Bukatzeko, gerriaren inguruan soka lotuko dugu.
  - Ikasleen artean banatuko ditugu ardurak. Zerbait behar duten bakoitzean ikasle horiengana jo beharko dute besteek, zer behar duten azalduz. Saioa bukatzen denean, materialaren arduradunek erabilitako gauzak bere tokian daudela ziurtatuko dute.
  - Ikasleek jantzia egingo dute.
  - Bukatzeko, jantzia egiteko emandako urratsak liburuan idatziko dituzte, talde handian ahozko planifikazioa egin ondoren. Banaka edota binaka, aurreko idazketa-jardueran egin duzuenaren arabera aldatzea komeni da.
- Horrela eginez gero, hau da, lehenengo jantziak egin eta ondoren prozesua idatziz jaso, ikasleek aski ezaguna izango dute idatzi beharrezkoa, eta informazio hori kodetzea izango da ikasleen lan bakarra. Beraz, arreta berezia jarri ahal izango dute kodean.

**HAUSNARKETA.** Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...

37. jarduera	<b>APAINGARRIAK</b>
ZIKLOKO HELBURUA(K)	
	<p><b>1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko <i>informazio aurkitzea eta aukeratzea</i>, eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.</b></p> <p><b>3.4 Arte plastikoak eta ikus-entzunezko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.</b></p> <p><b>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</b></p>
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	
	<p>1.7.1 Erantzun zehatzeko galderei erantzuteko informazioa aurkitzen du eskainitako testuetan.</p> <p>3.4.8 Materialak manipulatu eta aztertuz gozatu du.</p> <p>4.1.8 Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.</p>
METODOLOGIA	
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka
MATERIALA	Liburuko 19. orrialdean, irina, gatz fina, ura eta tenpera-pinturak eta soka
<b>AZALPENAK</b>	

- Bonbilla-txartelean jartzen duena irakurri ondoren, papertxo batekin argazki-oinak tapatzeko esan eta irudiei ondo behatzeko eskatuko diegu ikasleei. Hori egindakoan, elkarrizketa eta iritzi-trukea bideratuko ditugu.
- Irudien bidez jakin behar dugun guztia argitu ote dugun galdetuko diegu haurrei.
- Gero, denon artean/irakasleak irakurriko ditugu lau pausoak. Pauso bakoitzean adierazten denak nahiko informazio eman digun, eta beharrezkoa guztia argitu ote digun galdetuko diegu haurrei. Gako hitzak birbildu ditzakezue. Idatzizko informazioak duen balioa azpimarratuko dugu.
- Jakina, informazioa zerbaitetarako eskuratu dugula, eta oreka egiten hasiko gara. Seguru asko, hurrengo egunera arte ez zaizkizue lehortuko piezak. Beraz, orduan jarraitu beharko duzue prozesuarekin. Garai horretan berogailuak piztuta egon ohi direla baliatuz, haien gainean edo aldamenean jarrita prozesua bizkortuko dugu.
- Denboraz larri bazabiltzate, makarroiak, muskuilu-oskolak... margotu eta hariz lotu.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

38. jarduera	<b>GIDOIA OSATZEN</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
1.7 Irakurketa helburuari erantzuteko <i>informazio aurkitzea eta aukeratzea</i> , eskueran jarritako informazio-iturriak erabiliz.		
1.8 Ohikoak diren generoetako <i>testu idatzi sinpleak sortzea</i> , modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.		
4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzeta eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.7.1 Erantzun zehatzeko galderei erantzuteko informazioa aurkitzen du eskainitako testuetan.		
1.8.1 Hizkuntza idatziaren eraikitze-prozesuan aktiboki parte hartzen du, idatziaren oinarrizko unitateak (grafiafonemak, hitzak, perpausak, paragrafoak...) kodetzean aurrerapenak eginez.		
4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta banaka	
MATERIALA	Liburuko 20. orrialdea	
<b>AZALPENA</b>		

Dagoeneko antzezpenearen prestaketan murgiltzen hasiak gara, hainbat baliabide prestatu ditugu. Bada ordua, denon artean antzezpenearen oinarrizko gidoia idaztekoa. Entzunaldian landutako eszenek eta ekintzek osatuko dute gidoia nagusiki. Hala ere, historian gure pertsonaiak txertatzeko, gidoiaren lau zatirik nabarmenenak markatzea interesgarria izan daiteke:

1. Hasierakoa, lehen gizakien bizitza arruntaren eszena bat: haur batzuk margo batzuk margotzen, beste haur batzuk tresnak egiten eta probatzen (lantzak, geziak, arkuak...), beste batzuk larrua lantzen, beste batzuk sutondoan... Komunikazioa soinuen eta keinuen bidez egiten da.
  2. Ehizarako prestaketetan dabilzala, talde-dantza bat egingo dugu. Horretarako, Oreka TX txalpartarien taldeko abestia erabiliko dugu ENTZUNALDIA jardueran (12. jarduera) deskribatzen den bezala edota antzera.
  3. Hirugarren eszenan, lehen gizakiek ehiza bukatu dutenean, bat-batean, gure pertsonaiak agertzen dira. Lehen gizaki guztiak beldurtuta makurtzen hasten dira, pertsonaiak jainkoak balira bezala. Nahi izanez gero, hurrengo orrialdeko komikiari beha diezaiokezu, eszena hori hortxe ikus daiteke eta.
  4. Bukatzeko, gure lagunen eta lehen gizakien artean komunikazioa sortzen hasten da. Maddalen eta Fermin eta lehen gizakien artean tresna batzuen trukea hasten da (musika-entzungailuak, erlojua, nintendo, lantza...). Denbora bat pasa ondoren, gure pertsonaiak agur esaten diete, lehen gizakiek zerbait ematen diete (lantza, buztinezko venusa...) eta... hortxe bukatzen da.
- Halere, marrazkien irakurketa-era bat baino gehiago egiten saiatu haurrekin. Gidoia interpretazio horien arabera egitea izango litzateke egokiena. Behin erabakia hartuta, testuak elkarrekin planifikatu, baina bakoitzak bere liburuan bere erara idatziko du.
  - Taldea antolatzen hasiko gara alderdi horiek kontuan hartuta. *Zer pertsonaiak hartuko dute parte antzezpenean?* Gogoratu entzunaldiko koreografiaz gain, Maddalen eta Fermin behintzat beharko dituzuela.
  - Haiek bezala mugituko gara: *Zer ekintza egin behar dituzte? Sutan janaria prestatu, gezien puntak zorrotzu, jantziak josi, etab.* Ekintza horiek guztiak mimoa eta "kamara geldia" (hau da poliki-poliki) teknikak erabiliz denok batera adieraziko ditugu. *Zer keinu egiten dituzte? Pozik daudenean. Triste daudenean. Haserretzen direnean etab.*
  - Haur bakoitzaren papera garbi dago, dekoratua prest daukagu, gidoia ezagutzen dugu, antzezpenean erabiliko ditugun tresnak, mozturak etab. eginak ditugu... Orain entseguak egitea besterik ez zaigu falta antzezpenearen egunerako dena prest edukitzeko. Beraz, astean zehar tartetxo batzuk erabiliko ditugu entseguak egiteko.
  - Behin entseguak egin ondoren, gure emanaldirako prestatu ditugun gauzak non eta nola bildu eta egunari begira beharko ditugun baliabide zerranda erreparatuko dugu, saiorako guztia txukun eta prest uzteko. Eginbeharretarako arduradunen bat izendatu badugu, ardurak ere erreparatuko ditugu.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

39. jarduera	<b>KARTELAK ETA FITXA TEKNIKOA</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>3.3 Erreferente plastikoak eta ikus-entzunezko erreferenteak ulertzea, hautematea eta interpretatzea.</b> <b>4.1 Hainbat testuingurutan, talde-lanean aritzea helburu komunak lortzeko; lankidetzaren eta errespetu jarrerak aintzat hartzea, eta inolako bereizkeriarik ez onartzea.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
3.3.5 Artelanen eta ikus-entzunezko kulturatik gertu geratzen diren produktuen (kartelak, iragarkiak, filmak...) asmoak, funtzioak eta erabilerak aztertzen ditu eta egoera jakinetan erabiltzen ditu. 4.1.1 Talde-lanean aktiboki parte hartzen du. 4.1.8 Laneko materialak arretaz erabiltzen ditu eta jasotzen ditu.		
METODOLOGIA		
INTERAKZIO DIDAKTIKOA	Talde handian eta binaka	
MATERIALA	Irakurgaiak liburuko 44. orrialdea, kartoi meheak, errotulagailuak...	
<b>AZALPENA</b>		

- Gure antzerkia noiz eta non izango den berri emateko, hainbat era daude. Horietako bat kartela da. Ikastolako atean, pasabideetan, irakasle geletan... jartzeko kartela egingo dugu gure emanaldia iragartzeko.
- Kartelak egiten hasi aurretik, hainbat adibide aztertzea komeni da. Horietako bat irakurgaietan duzuen izan daitezke. Hor zer datu agertzen diren aztertuko dugu: testua eta irudiaren arteko lotura, tipografia, paperaren neurria, datuak...
- Gidatutako behaketa egin ondoren, haurrak binaka taldekatu, eta plastikako teknikak erabilita, A3 orrietan, antzezenaren kartelak egiteko proposamena luzatuko diegu ikasleei.
- Karteletatik aparte, antzezena iragartzeko beste era batzuk aztertuko ditugu: orritxo batzuk prestatu eta ikastolako haurrei banatu, etxeetako gutunontzietan sartu, herriko irratirako/telebistarako iragarki bat prestatu...
- Egindako kartel guztiak ikastolan eta herrian kokatuko ditugu.

**HAUSNARKETA. Lana nola bideratu den (nork egin duen): zailtasunak, egindakoaren balorazioa...**

40. jarduera	<b>GONBIDAPENA</b>	
ZIKLOKO HELBURUA(K)		
<b>1.8 Ohikoak diren generoetako testu idatzi sinpleak sortzea, modu gidatuan, oinarrizko koherentzia, kohesio eta zuzentasun printzipioei erreparatuz.</b>		
EBALUAZIO IRIZPIDEAK		
1.8.3 Testua egoki aurkezten du: kaligrafia irakurgarri eta eraginkorra, emandako marjinak eta marrak, idazpuruak... 1.8.8 Ikaskideekin batera testu jakin bat sortzea eta berrikustea helburu duten jardueretan parte hartzen du.		
METODOLOGIA		
